




HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Inspección de Educación



hezkuntza ikuskaritza



EAEko Hezkuntza Ikuskaritza

Urteko Plana – 2022-23 ikasturtea



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
2.	TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
3.	ESKU HARTZEKO ILDO ESTRATEGIKOAK	7
4.	2022-2023 URTEKO PLANAREN HELBURUAK	9
5.	KALITATE SISTEMA	18
5.1.	Hezkuntza ikuskaritzaren makroprozesuak eta prozesuak	18
6.	2022-2023 IKASTURTEKO JARDUERAK	22
6.1.	Jarduera Giltzarriak 2022-2023 ikasturtean	22
6.2.	2022-2023 Ikasturteko jarduerak	26
7.	IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA. IKUSKARITZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA	37
7.1.	Ikuskaritzaren Prestakuntza Plana	37
7.2.	Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa	38
8.	IKUSKARITZAREN ANTOLAKUNTZA	39
8.1.	Ikuskariei zentroak esleitzea	40
8.2.	Lurraldeetako urteko plan orokorra zehaztea	41
9.	2022-2023 URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA ETA EGUNERATZEA	41
9.1.	Urteko plana eguneratzea	42
I.	ERANSKINA	44
	Ikuskaritzak zentroetan egiten dituen esku-hartzeen kronograma. 2022-2023 ikasturtea	44
II.	ERANSKINA	57
	Ikastetxeak hobetzen laguntzea	57
	Eskubide eta betebeharren bermea-arauen kontrola	60
	Bizikidetzak – Gatazkak konpontzea	64
	Programen jarraipena – Sistemaren helburuak	65
	Beste prozedura eta batzorde batzuk	66
	Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzeko jarduerak	68
III.	ERANSKINA	70
	2022-2023 Prestakuntza-planeko jarduerak	70
IV.	ERANSKINA	73
	Gogobetetze-inkesten emaitza	73
V.	ERANSKINA	75
	Auditoretzen emaitzak	75
VI.	ERANSKINA	77
	Ikuskaritzako zonak	77
VII.	ERANSKINA	78
	Urteko planaren aldaketak ikaskuntza, berrikuntza eta hobekuntzarako mugarriak	78
VIII.	ERANSKINA	79
	Glosarioa	79





1. Sarrera

Aurkezten dugun 2022-2023ko Hezkuntza Ikuskaritzaren plan hau 2020-2023 hirurteko planaren azkena da. Hau horrela, aurtengo planak atzera begira ez ezik, aurrera begira ere egon beharko du: atzera begira, azken bi ikasturteotan izan ditugun hutsuneak zuzentzeko eta ondo egindakoa sendotzeko; aurrera begira, mugimendu etengabearen dagoen gizarte batek eskatzen dituen erronkei erantzuteko, hauek identifikatuz eta, ahal denetan, aurre hartuz.

Atzera-aurrerako begiratu horrek behar luke hurrengo Hezkuntza Ikuskaritzaren 2023-2026 hirurtekoaren oinarri, guztion artean, elkarlanean, diseinatu eta landu beharko duguna. Elkarlan hau errealitate bihurtuko bada, ezinbestekoa izango da plantilla osoa osatzen dugun garapen profesionala, inplikazioa eta kide izatearen sentimendua hauspotzea.

Azken urteotako planetan bezala, aurtengo plana egiteko garaian kontuan hartu dira, besteak beste, honako hauek: 2021-2022 urteko planaren ondorioak; 2021-2022 ikasturteko auditoretzen emaitzak; asebetetze galdetegiak; eta, bereziki, AZ eta lan-taldeetan egindako lanean jasotakoak.

Hau esanda, garbi dugu, Hezkuntza Ikuskaritzaren planak (hirurtekoak nahiz urterokoak) diseinatzeko eta egiteko garaian ikuskari guztion parte hartzeak aktiboagoa behar duela izan. Helburu hori lortze aldera, aurtengo planak bide horretan lehen urratsa eman nahi izan du eta 2022ko irailaren 16an ikuskari guztiekin egindako bilkuran jasotakoa hartu du aintzat. Bide hau hobetzen eta sakontzen joatea izango da datozen urteotako erronka nagusienetariko bat.

Urteko plan honek, esan bezala, hirurtekoan ezarritako helburuak izango ditu oinarri, eta hauek, ikuskaritzaren esku-hartzearen hiru eremuei erreparatuz landuko dira: Ikastetxeei begira, Ikuskaritzari begira eta Saileko gainerako zerbitzuei begira. Ikastetxeei begira dagokionean, aurtengo ikasturtean aparteko garrantzia hartuko du curriculum berriaren ezarpenak; Ikuskaritzari dagokionean eta, *ad intra* ari garelarik, ikuskarion prestakuntza integralari azpimarra egitea ezinbestekoa dela irizten diogu, hezkuntzan ematen ari den berrikuntza-prozesuan erreferente bihurtu gaituz; eta, azkenik, Hezkuntza Sailari begira, bereziki, sailburuordetzak ezarritako lan-ildoekin bat eginez eta, dagokionean, hauetatik ondorioztutako aholkularitza emanaz, jarraipena eginez eta ebaluazio prozesuetan parte hartuz, betiere, sistemaren kalitatea lortze aldera.

Ezin ahantz dezakegu, halaber, etorkizuneko euskal hezkuntza-sistema diseinatzeko ari den une honetan, Hezkuntza Ikuskaritzak eredu behar duela izan, hezkuntza-komunitateari begirada profesionala, independentea eta kualifikatua eskainiz, eta guztion artean eraikitzen ari garen bide horretan, urteko plan hau tresna ezin egokiagoa dela ziur gaude.

Testuinguru horretan, Hezkuntza ikuskaritzaren interes taldeen behar berrituetara egokitzeko ahalmena duen Ikuskaritza izan nahi dugu, desikasteko gaitasuna duena eta desikastekoak utzitako hutsunea behar berrietara egokitutako estrategiekin betetzeko abilezia izango duena. Hau guztia, duela bi ikasturte ikuskari guztion artean eguneraturiko ikuskaritzaren Misioan, Ikuspegiaren eta Balioetan oinarriturik.

Ingurumaria honetan, bizi gaituen 2020ko hamarkadan hezkuntza ikuskariaren profil gaurkotua definitzea ezinbestekoa da, ikuskariok jakin behar duguna, izan behar duguna eta egin behar duguna guztion artean erabakitzea funtsezkoa baita, gure jardunak eskola komunitateari balio erantsia eskainiko badio.

Orobat, euskara ardatz duen Euskal Hezkuntza Sistema eleaniztun batean ikuskarion jardun profesionalan euskarareriko dugun jarrerak aparteko garrantzia hartzen duela sinetsita gaude. Hari-mutur horretatik tiraka, urteko plan hau testuinguratzen duen aitzinsolas honetan egoki irizten diot Ikuskaritza arautzen duen 98/2016 DEKRETUAK gai honen inguruan jasotzen duena azpimarratzea: *Prestakuntza eta euskararen erabileraren sustapena lehentasunezkoak izango dira Hezkuntza Ikuskaritzaren Urteko Planetan*

Azkenik esan, urteko plan honek, azken urteotakoak bezala, aitzinsolas honen eta testuinguruaren azterketa baten ondoren, 2022-2023 ikasturterako planteatutako helburuak eta horiek lortzea erraztuko duten oinarrizko jardueraildoak aurkezten dituela, besteak beste.

Hau guztia kontuan hartuta, aurkezten da 2022-2023 urteko Hezkuntza Ikuskaritzaren Plana, gizarteak hezkuntza arloan dituen premia aldakorrei eraginkortasunez erantzuteko tresna gisa.





2. Testuingurua eta justifikazioa

2022-2023 urteko plan hau honako testuinguru-elementu hauek baldintzatuko dute bereziki:

a. Pandemiak eragindako osasun egoeraren amaiera

Azken bi ikasturteak baldintzaturiko egoera pandemikoa itxi ondoren, ikastetxeek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan jarria behar dute euren indar gutzia. Ikastetxeek ireki den etapa berri honetan bidelagun behar gaituzte, hain beharrezko den hezkuntza prozesuetan zentratze bidean.

b. Aldaketak ikuskaritzako plantillan

2022-2023 ikasturteak aldaketa esanguratsuak ekarri ditu ikuskaritzako plantillan. Ikuskaritza zentralean eman den aldaketaz gain (ikuskeri nagusi berria eta hiru ikuskari-zentral berri) kontuan hartu behar dugu 2022ko irailaren 1ean Ikuskaritzan sartu diren ikuskari berriak (Bizkaian 6 eta Gipuzkoan 1) eta Lurralde aldatu diren bi ikuskari (Arabatik Bizkaira, bata; eta Bizkaitik Gipuzkoara, bestea).

Honetaz guztiaz gain, azken urteotan bezala, datozen urteetan jubilazio kopuru esanguratsua aurreikusten denez, arreta berezia jarri behar da erakundeak ezagutza galtzeko duen arriskua ahal den neurrian saihesten edo arintzen lagunduko duten estrategietan.

Planteatzen diren erronka berriei aurre egiteko, beharrezkoa da ikuskariok ezagutza eta esperientzia izatea. Hori dela eta, ezagutza eta esperientzia hori ahalik eta arinen eskuratzea ezinbestekoa da aipatu erronkei ekiteko. Beraz, tutoretza, prestakuntza, autoebaluazio eta hautapen prozesuetan sakontzen jarraitu behar dugu, zerbitzuaren beharretara eta hezkuntza-komunitateari eskaini behar dion erantzunera ondo definitutako eta egokitutako gaitasunak erreferentziatzen hartuta. Gaitasun horiek zehaztuko dituen profila ondo definitua izatea (amaitua esan nahi baita) ikasturte honetan landu beharreko beste zeregin nagusietako bat izango da.

c. Ikastetxeetatik eta hezkuntza-administrazioko beste zerbitzu batzuetatik datozen eskarien kopurua eta konplexutasuna handitzea

Ikuskaritza-zerbitzuak programatutako jardueraz gain, lankidetzaz jarduerak egiten dira administrazio-prozesuen kudeaketan, arautegi berrien diseinuan, prestakuntza-prozesuetan, herritarren eskakizunei erantzuteko lanetan, besteak beste.

Hori dela eta, Ikuskaritza-zerbitzuak ahalik eta eraginkortasun handiena bilatu behar du bere zereginetan, eta lehenetsun-irizpideak ezarri behar ditu bere jardueren garapenean.

2020-2021 ikasturtean ikuskaritza-jardueren helburuak eta eraginkortasuna berrikusteko prozesua hasi zen, eta 2022-2023 ikasturte honetan zehar jarraitu beharko du.

Duela bi ikasturte ikuskatzean garatzen diren jardueren edo azpiprozesuen eraginkortasun-, efizientzia- eta doikuntza-maila errazteko tresna bat prestatu zen. Tresna hori aplikatu den azpiprozesuetan atera diren ondorioak eta hobekuntza-proposamenak inplementatzen jarraitu beharko dugu.

Horretaz gain, ikuskaritzaren eraginkortasuna areagotze aldera ditugun prozesuen berrikuspena egin beharko dugu eta aurtengo ikasturterako zehaztuko diren lan-taldeen arteko lotura tematikoa bermatu. Ariketa horrek azken urteotan indarrean egon diren prozesuen kopurua doitzea ekarri behar du eta, horrenbestez, gure jarduna egiazko beharretara egokitu.





d. Hezkuntza Sailaren planak eta proiektuak

Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunetako bat da Hezkuntza Sailak sustatutako programen jarraipena egitea, lortu nahi diren helburuen lortpen-maila egiaztatzeko. Gainera, helburu horietako asko diseinatzen eta garatzen laguntzen du.

Hona hemen plan eta programa aipagarrienetako batzuk: Eraldatzen Programa; Eusle-Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna indartzea; Hedatze; Digitalizazio Plana; Zuzendaritza eta Lidergoa; Metodologia berriak; Bizikasi ekimena; Curriculum berriaren plangintza eta ebaluazioa eredia; konpetentzien garapena; tutoretza-planak; lege organiko berriaren ondoriozko arauaren garapena (curriculumaren garapena, ebaluazioarena...); euskal hezkuntza sistemaren lege berria...

Hauek guztiek planteatuko dizkiguten erronkei eta aukerei aurre egiteko Ikuskari guztion prestakuntzak egundoko garrantzia hartzen du. Prestakuntza saio hauen ebaluazioetan jasotako emaitzak izango dira hurrengoetako prestakuntza saioen gidari.

e. Ikuskatze Memoriaren ondorioak

Zuzendaritzak egindako berrikuspen-txostenak, eranskinetan, ikastetxeetan egiten diren jardueren emaitzen memoria (ikuskatze-memoria) jasotzen du. Bertan, talde arduradun bakoitzak proposamenak egiten ditu Ikuskaritzaren esku-hartzea hobetzeko eta, hala badagokio, birbideratzeko. Gainera, hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko datuak eta ondorioak jasotzen dira.

f. Gogobetetze-inkestak

Urteko Ikuskaritza Planean jasotako jardueri eta ikastetxeetan egiten diren moduari buruzko iritzia jasotzeko, besteak beste, ikuskariei, administrariei, ikastetxeei eta Administrazioaren beste zerbitzu batzuei zuzendutako gogobetetze-inkestak erabiltzen dira. Galdetegi anonimo horien bidez jasotako informazioa ikuskatze-batzordean aztertzen da, eta bereziki kontuan hartzen dira interes-talde bakoitzak egindako proposamenak.

Dokumentu honen [IV. eranskinean](#) lortutako emaitzen laburpena jasotzen da.

g. Auditoretzen emaitzak

Plan honen helburuak formulatzean, kontuan hartu dira barne- eta kanpo-AUDITORETZEN emaitzak. Dokumentu honen [V. eranskinean](#) emaitza horien laburpena jasotzen da.

h. Digitalizazio-prozesuetan aurrerapenak. Tresna informatiko berriak

Ikuskaritzak berea duen V-92a aplikazio informatikoaz gain, azken ikasturteetan, gorakada nabarmena izan dugu bestelako tresna informatikoen erabilera: Office 365 (SharePoint, Onenote, Outlook egutegia, Forms, Teams...). Ikasturte honetan, tresna horiek edo beste batzuek Ikuskaritza-zerbitzuari eskaini diezazkioketen aukera berrietan sakondu behar dugu eta, horretarako, tresna digital hauek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatu ahal izateko, hemen ere, prestakuntzaren garrantzia azpimarratu behar dugu.

V-92ari dagokionez, gurean dugun bitartean, duguna hobetzen jarraitu behar dugu. Horretarako, bi bide aurreikusten ditugu urteko plan honetan: V-92 AZ-ren lan-taldea indartzearen beharra, batetik; eta, EJIkoekin harreman-sare egonkor eta sistematizatu bat eraikitzea, bestetik.

Testuinguru horretan EJIkoek ikastetxeekin egiten dituzten bileratan presente egon behar dugu, besteak beste, ikastetxeek dituzten eskarien berri izateko.

Guztiarekin bide bat eraikitzearen beharra ikusten dugu, maneiatzen ditugun datu ugariaren erabilpen jasangarria egite aldera. Bide horretan, EJIkoekin jada adostua dugu ikasturte honetarako, hainbat jardueratan erabiltzen ditugun





datuen ustiaketa hobetzeko aztertze-lan bat hasiko dutela (zuzendaritza taldeen izendapenak eta praktiketako funtzionarioen datuen trataera).

Bestalde, Lurraldeetako kanpoko eskarien (presentzialak zein telefonikoak) kudeaketan, azken bi ikasturteetan abian jarritako prozedurarekin jarraituko dugu.

i. Ikuskaritzaren Misioa, Ikuspegia eta Balioak eta Zerbitzuen Katalogoa

2020-2021 ikasturtean Ikuskaritzaren misioa, ikuspegia eta balioak berrikusi ziren, Ikuskaritzako kide guztiek parte hartu zuten lan-saio telematikoen bidez. Gainera, Zerbitzuen Katalogo bat egin zen, hezkuntza-komunitateko sektore bakoitzari Ikuskaritzak ematen diona ezagutarazteko. Ikasturte honetan dagokion hedapen-prozesuarekin jarraitu behar dugu.

j. Arau-ingurumari berria

2020-2021 ikasturtean Hezkuntzari buruzko Lege Organiko berria (LOMLOE) argitaratu zen. Bultzada normatibo hau hartaraturik, gure erkidegoan curriculum berriak garatzeari ekin zitzaion aurreko ikasturtean (lerro hauek idaztean Hezigunean ikusgai daudenak). Horrek guztiak arau-garapen handia ekarriko du, eta ikuskaritzak adi egon beharko du oso, izan ere Erkidegoko araudia garatzean, Hezkuntza Ikuskaritzak garapen- edo/eta aholkularitza-prozesuetan esku hartuko duela aurreikusten da.

Gainera, ezinbestekoa ikusten da ikuskari guztiei zuzendutako prestakuntza-prozesuei ekitea curriculum berriaren ezarpenaren eta ebaluazio eredu berrien inguruan bereziki. Hau guztia ikastetxeei arau-aholkularitza emateko lana ahalik eta eraginkortasun handienarekin egin dezagun.

k. 2021-2022 ikasturtean garatutako prestakuntzaren emaitzak eta Ikuskaritzako langileek adierazitako behar berriak

2021-2022 ikasturteko azken hiru hilabetean egindako gogobetetze-inkestan, eta 2022ko irailaren 16an Ikuskari guztiok Gasteizen egindako bilkuran, ikuskariak hainbat prestakuntza-eremu proposatu zituzten, eta, horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: Curriculum berriaren inguruko formakuntza sakona (gehien errepikatzen dena); prestakuntza juridikoa eta hezkuntza-araudia; eskaerak kudeatzeko tramitaguneari buruzko formazioa; OFFICE 365 informatika-aplikazioak; Ikastetxearen behaketa: bisita eraginkorra; Diziiplina espedientea; langile publikoen diziiplina-araubidea; bitartekaritza; ikastetxeen ebaluazioa; irakaskuntza-gaitasunen ebaluazioa; zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa; gaitasunetan oinarritutako curriculum-ebaluazioa; irakasteko eta ikasteko metodologia berriak; Ikuskaritza-txostenak hobetzeko eta lan-kargak kudeatzeko estrategiak, etab.

l. Beste lorpen edo produktu garrantzitsu batzuk

Azken bi ikasturteotan, aurrera egin da, besteak beste, honako prozedura hauetan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzuen katalogoa eta Misioaren, Ikuspegiaren eta Balioen berrikuspen berria.
- Web orria eguneratzea.
- Irakaskuntzako kompetentzia-profilaren dokumentu deskribatzailea.
- Ikuskaritza-eginkizunaren kompetentzia-profilaren bertsio berria.
- Ikuskaritza-eginkizunaren kompetentzia-profila erreferentziatzen hartuta, zerbitzu-eginkizunetan dauden ikuskariak ebaluatzeko eta praktiketako ikuskariak autoebaluatzeko dokumentua.
- AZen eraginkortasun-proiektua: Ikuskaritzaren egungo prozesuen efikazia eta efizientzia berrikusteko dokumentua.
- Ikuskariaren nahiak eta zaletasunak jasotzeko dokumentua.
- Excel agente-taula, urteko planaren helburuen jarraipena egiteko.
- Hezkidetzak: prestakuntza-pilulak.





- Ezagutza transmititzeko plana.
- Zerbitzuan sartzen diren pertsonen tutoretza-plana (harrera-planaren zati gisa)

Ikasturte honetan beharrezkoa izango da horietako batzuk osatzen joatea, beste batzuen jarraipena egitea, dagozkionak ebaluatzea eta ebaluazio horren ondoren erabakiak hartzea.

Faktore horiek kontuan hartuta, hurrengo puntuan azaltzen diren helburuak planteatzen dira. Hala ere, azpimarratu behar da horiek hezkuntza-sistemaren premia aldakorrei erantzun egokia emateko egoerak eskatzen duen zuhurtziaz eta malgutasunez landu behar direla.

3. Esku hartzeko ildo estrategikoak

Ikuskaritzaren egitekoak ildo estrategiko jakin batzuen bidez garatzen dira. Ildo horiek helburuak lortzeko bidea markatuko dute, eta Ikuskaritza-jarduerari koherentzia emango diote ikuspegi orokor batetik. 3 dira 2020-2023 hiru urteko planean ezarritako ildo estrategikoak, 2022-2023 ikasturte honetan ere aterki gisa dauzkagunak:

1. Ikastetxeetan esku hartzea, euren hobekuntzan laguntze aldera. **(IE1)**
2. Hezkuntza Saileko beste zerbitzu eta unitate batzuekin eta beste sail eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea. **(IE2)**
3. Ikuskaritzaren hobekuntza **(IE3)**.

Hala ere, adierazi behar da garatu beharreko jarduera gehienek hirurei dagozkien esparruetan eragiten dutela, erkidego honetako Hezkuntza Ikuskaritzak hartu duen izaera sistemikoa eta holistikoa zentroen ikuskatze-ereduaren arabera diseinatzen eta garatzen baitira.

Hiru ildo estrategiko horietatik sei helburu orokor eratortzen dira 2020-2023 hiru urteko planean, eta horiek izango dira 2022-2023 ikasturteko helburuen iturri:





Ildo Estrategikoak (IE)

IE1: Ikastetxeetan esku hartzea, euren hobekuntzan laguntze aldera

IE2: Hezkuntza Saileko beste zerbitzu eta unitate batzuekin eta beste sail eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea

IE3: Ikuskaritzaren hobekuntza

2020-2023 Helburuak

1. Hezkuntza Ikuskaritzak indarrean dagoen araudiak hezkuntza komunitateari aitortzen dizkion **eskubideak eta betebeharrak bermatzeko** egiten duen ekarpenean aurrera egitea.
2. EAEko ikuskaritzak ikastetxeetan duen **esku - hartze ereduaren efikazia eta efizientzia** hobetzen aurrera egitea
...Ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko

3. Hezkuntza - administrazioarekin eta, oro har, gizartearekin **harremana eta lankidetz**a hobetzen aurrera egitea
...Hezkuntza-sistema hobetzen laguntzeko

4. **Zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa** hobetzen aurrera egitea
...gure jardueraren eraginkortasuna handitzeko
5. **Ikuskaritza - zerbitzuaren gaitasun profesionalaren hobekuntza** globalean aurrera egitea
...gure jardueraren eraginkortasuna handitzeko
6. **Beste erakunde batzuekiko lankidetz**a-prozesuetan aurrera egitea, aliantzak ezartzea eta **berrikuntza-prozesuak bultzatzea**, hobekuntzarako eta egokitzapen eraikitzailea etengabeko aurrerapena errazteko (ikaskuntza eta etorkizuneko ikuspegiarekin aurrera egitea ekarriko duena), langile guztiak inplikatur.





4. 2022-2023 Urteko planaren helburuak

Belztuta daudenak dira 2022-2023 ikasturte honetako berriazko helburuak.

2022-2023 Helburuak

Ildo Estrategiko 1

- Ikasleen ongizatea sustatzeko estrategiak garatzea, elkarbizitza probentzietatik eraginez Bizikasik ezartzen duenari jarraituz.**
- Eskola komunitateko kideen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko ikuskaritzak egiten dituen zereginak dagozkien prozeduren arabera jardutea, horiei buruzko informazioa izatea eta beharrezkoak diren doikuntzak egitea.
- Familiek, ikasleek... ebaluazioari buruzko informazioa jaso dutela bermatzea.
- Administrazioari proposamenak egitea ikasturte honetan eskubide eta betebeharrekin lotuta aterako den araudia garatzeko: curriculum, ebaluazioa, zuzendaritza, aniztasuna, eskola-antolaketa ...
- Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, arreta berezia jarritz antolaketan, ikasleen ebaluazioan eta BeAren ginkizunetan.**

Ildo Estrategiko 2

- Administrazioak eta herritarrek (Zuzenean, erregistro elektronikoa, Tramitagune, eta abar) egiten dituzten **eskaerak** biltzeko eta kudeatzeko egungo prozedurak aztertzea, diseinatzea, ebaluatzea eta aditzera eman, eraginkorragoak izan daitezkeen...
- Ikuskaritzako txostenen kalitatea hobetzen lagunduko duten prozedurak diseinatzea.
- 2022-2023 ikasturtean indarrean dauden hezkuntza sailaren proiektuen garapenean eta ebaluazioa parte hartzea, Eraldatzen, Hedatze.**
- Hezkuntza Saileko beste atal batzuekin batera egiten ditugun esku-hartzei buruzko hausnarketa egitea (egokitasuna, prozedura...), beharrezkoak diren doikuntzak eraginez.
- Ikuskaritzaren Urteko Plana ikastetxeetan ezagutaraztea.
- Ikuskaritzako web orria eguneratuta edukitzeko prozedurak ezartzea, ikastetxeentzat eta, oro har, herritarrentzat interesgarria den informazioarekin.

Ildo Estrategiko 3

- Aurreko ikasturteetan AZtan egindako analisiaren ondorioz hartu ziren erabakien jarraipena eta doikuntzak egitea.
- Ezartzen ditugun helburuen egokitasuna eta koherentzia aztertzea eta helburuen lorpen-adierazleak finkatzea kalitate sistemaren eta eraginkortasunaren ikuspuntutik.
- Kudeaketa aurreratuaren ereduan aurrera egitea, Pertsonak elementua garatzen jarraitzea eta Berrikuntza elementua bultzatzea.
- Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren (V-92) aukerak aztertzea eta gaur egun dauzkagun beharretara egokitzea.
- Ikuskarien gaitasun digitala areagotzea.**
- Administrazioan oro har, eta gure sailean bereziki, gehien erabiltzen diren plataforma digitalen erabilera sustatzea ikuskarien artean (Egoitza digitala, Hezigune, Tramitagune, Ikasgune, Sinadudura digitala...).
- ISO 9001:2015 ziurtagiria berritzea. Ikuskaritzaren kalitate sistema aztertzea eta horren araberrako erabakiak hartzea.**





2022-2023 Helburuak

Ildo Estrategiko 1

6. **Ikastetxeetako lidergoan eragiten jarraitzea.**
7. Ikastetxeek aurrera eraman beharreko proiektuetan Sailaren ildoen isla ikuskatzea, informazioa jasotzea, aholkatzea, orientatzea, beti ere eskola emaitzak abiapuntu hartuta.
8. **Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioan aurrera egitea.**
9. Ikastetxeen ikuskatzean aurrera egiten jarraitzea, hiruhilabeteka eta etapaka egin beharrekoak zehaztuz.

Ildo Estrategiko 2

Ildo Estrategiko 3

23. **Ikuskariaren profila eta menperatu beharreko kompetentzien markoa eguneratzea.**
24. Lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak garatzea, Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunak deskribatzen dituen tresna erabiliz.
25. Ikuskaritzaren komunikazio- bideak aztertzea, eta komunikazio-sistema eraginkorra sortzea.
26. Urteko zereginen banaketan, ikuskari bakoitzaren interesak eta ezagutzak kontuan hartzea motibagarria gerta dakion eta, horren bitartez, inplikazioa, kidesun-sentimendua eta erakundearen helburuekin bat etortzea areagotuz.
27. Ikuskari berrien harrera-prozesua berrikustea.
28. Ezagutza-galera gutxitzeko jakintzaren transferentzia egiteko prozeduren egituratzea.
29. Ikuskarion garapen profesionalerako Prestakuntza Plana diseinatzea, plantillaren eta Hezkuntza sistemaren beharrei erreparatuz.
30. Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneke beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko.
31. **Ikuskaritzako langileek ideia berritzaileak proposatzea bultzatuko duten prozedurak aktibatzea.**






Jarraian, **2022-2023 urteko helburuak (h)** eta haien lorpen-adierazleak aurkezten dira, 2020-2023 hiru urteko planaren helburu (**H**) bakoitzari lotuak.

Hiru urteko helburuak		2022-2023 Ikasturteko helburuak	Helburuaren lorpen adierazleak
H1. Hezkuntza Ikuskaritzak indarrean dagoen araudiak hezkuntza komunitateari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak bermatzeko egiten duen ekarpenean aurrera egitea, honako hauen bitartez:	a. Egoera espezifikoetara egokitzeko prozedurak ezartzea (adib.: covid-19)		
	b. Egungo prozedurak eta, bereziki, bizikidetzarekin lotutakoak berrikustea, haien eraginkortasuna eta eragina egiaztatzeke eta handitzeke.	h1. Ikasleen eta irakasleen ongizatea sustatzeko estrategiak garatzea, elkarbizitzari probentziotik eraginez Bizikasik ezartzen duenari jarraituz.	a. Elkarbizitza positiboa garatzeko ekintzak diseinatu dira ikuskaritzan, gutxienez 2. b. Jazarpen kasu guztien jarraipena egin da.
		h2. Eskola komunitateko kideen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko ikuskaritzak egiten dituen zereginak dagozkien prozeduren arabera jardutea, horiei buruzko informazioa izatea eta beharrezkoak diren doikuntzak egitea.	a. Inplikaturako lan-talde bakoitzak (ikus 6.2 atala) plangintza-fitxa egin du prozedura azalduz. b. Diseinatuta ditugun prozeduretan edo jardueretan (eskola-jazarpena, absentismoa, ebaluazio objektiborako eskubidea...) hobekuntzak egin dira, gutxienez 3tan.
	h3. Ikasleen ebaluazioari buruzko informazioa eskola komunitatean zabaldu eta jaso dela bermatzea	a. Ikasketa orokorreko etapa guztietako ebaluazio jarraibideak idatzi dira eta ikastetxeei bidali zaizkie. b. Etapa guztietako dokumentazio akademikoari buruzko jarraibideak idatzi dira eta ikastetxeei bidali zaizkie. c. Ikastetxe guztietako AJAtan ikasleen ebaluazio objektiboari buruzko erabakiak jasota daudela ziurtatu da AZ022004 Ikastetxeen ikuskatzearen 1. hiruhilabeteko galdetegiaren bitartez. d. 1. hiru hilabeteen ebaluazioari buruzko informazioa helarazi zaie familiei eta ikasleei ikastetxe guztietan, AZ022004 Ikastetxeen ikuskatzearen 1. hiru hilabeteko galdetegiaren bitartez ziurtatu ahal izan den bezala.	



	<p>c. Administrazioari proposamenak egitea, indarrean dagoen araudiaren edukia eguneratu eta hobetu dadin sustatzeko</p>	<p>h4. Administrazioari proposamenak egitea ikasturte honetan eskubide eta betebeharrekin lotuta aterako den araudia garatzeko: curriculum, ebaluazioa, zuzendaritza, aniztasuna, eskola-antolaketa...</p>	<p>a. Proposamenak egin ditugu araudiaren garapenerako esku-hartzea eskatu zaigun guztietan. b. Araudiaren garapenerako egin ditugun proposamenen erregistroa egin da.</p>
<p>H2. EAEko ikuskaritzak ikastetxeetan duen esku-hartze ereduaren efikazia eta efizientzia hobetzen aurrera egitea, bereziki honako hauek azpimarratuz:</p> <p><i>...Ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko</i></p>	<p>a. Ikastetxeen hobekuntzan eragin handiena duten alderdiak, batez ere emaitzen memorien ondorioetatik eratorritakoak, Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoetatik datozenak eta testuinguruaren egoerara egokitu beharra eskatzen duten beste batzuetatik jasotakoak.</p>	<p>h5. Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, arreta berezia jarri antolaketan, ikasleen ebaluazioan eta BeAren eginkizunetan.</p>	<p>a. HH, LH, DBH eta Batxilergoko ikastetxeetan curriculumaren inplementazioaren ikuskapena egiteko prozedura ezarri da. b. Ikastetxeetako egoeraren diagnostikoa egin da.</p>
		<p>h6. Ikastetxeetako lidergoan eragiten jarraitzea.</p>	<p>a. Ikastetxeetako irakasleekin lidergoa dela eta egin dugun esku-hartze kopurua igo da. b. Zuzendaritza funtzioaren ebaluazio-diseinu berria amaitu da.</p>
	<p>b. Ikastetxeak ikuskatzearen inguruan egiten diren ekintzen koherentzia, eragina eta eraginkortasuna ziurtatzea, pertsonen ebaluazioa azpimarratuz.</p>	<p>h7. Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoak ikastetxeetan inplementatzen direla ikuskatzea, informazioa jasotzea, aholkatzea, orientatzea.</p>	<p>a. Ikuskarientzat jarraibideak idatzi dira curriculumari, ikasleen ongizateari eta Digitalizazio Planari buruzko jarraipena egiteko. b. Ildo estrategikoen ikuskatzeari buruzko informazioa jaso da galdetegien bitartez.</p>
		<p>h8. Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioan aurrera egitea.</p>	<p>a. 22-23 ikasturtean praktikaldian egon diren irakasleen %40ak ikuskariaren behaketa izan du ikasgelan. b. Ikuskarientzat praktiketako funtzionarioen ebaluazioari buruzko jarraibideak idatzi dira. c. Praktiketako funtzionarioen ebaluazioari buruzko jarraibideak Ikuskaritzaren web orrialdean argitaratu dira eta ikastetxeei bidali zaizkie. d. Irakaskuntza profila jasotzen duen dokumentua berregiteko prozesua hasi da. e. Ministerioak irakaskuntza profila dela eta antolatutako lantaldean parte hartu dugu.</p>




		<p>h9. Ikastetxeen ikuskatzean aurrera egiten jarraitzea, hiru hilabetea eta etapaka egin beharrekoak zehaztuz.</p>	<p>a. Ikastetxeekin jorrazteko helburuen bankua sortu da. b. Ikastetxeen ikuskatzearen jardueraren bitartez Hezkuntza Sailarentzat esanguratsua den informazioa lortu da. c. Hezkuntza Sailarentzat esanguratsua den informazioa txosten batean jaso da eta dagokionari helarazi zaio.</p>
<p>H3. Hezkuntza-administrazioarekin eta, oro har, gizartearekin harremana eta lankidetzaren hobetzea aurrera egitea:</p> <p><i>... Hezkuntza-sistema hobetzen laguntzeko</i></p>	<p>a. Informazioa biltzeko prozedurak egokitu eta herritarren eskaeren kudeaketa bizkortuko duten beste batzuk ezarri.</p>	<p>h10. Administrazioak eta herritarrek (Zuzenean, erregistro elektronikoa, Tramitagune, eta abar) egiten dituzten eskaerak biltzeko eta kudeatzeko egungo prozedurak aztertzea, diseinatzea, ebaluatzea eta aditzera eman, eraginkorragoak izan daitezten.</p>	<p>a. Plataforma hauen arduradunekin bilerak egin dira, gutxienez 2. b. Jasotzen ditugun eskaerak biltzeko eta kudeatzeko prozedura zehaztu da, arduradunak ezarri dira eta idatziz jaso da. c. Prozedura berri hori martxan ipini eta 6 hilabetera, berorren balorazioa egin da, (eraginkortasuna neurtzeko eta hobekuntza proposamenak ezartzeko).</p>
<p>b. Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostenak eginez, jasotako informaziotik eratorritako proposamenekin, erabakiak hartzea errazten laguntzeko.</p>	<p>h11. Ikuskaritzako txostenen edukien kalitatea hobetzea.</p>	<p>a. Txostenen kalitatea hobetzeko prestakuntza saioa(k) egin dira. b. Txostenen kalitaterako proposamenak guztion eskura jarri dira V92an.</p>	
<p>c. sistemaren ebaluazioarekin, sailaren programa eta ildo estrategikoen jarraipenarekin edo beste batzuekin zerikusia duten ekintzetan parte hartuz, hezkuntza-sistemaren gardentasunaren, arauarekiko doikuntzaren eta ezagutzaren bermea emanez.</p>	<p>h12.  2022-2023 ikasturtean indarrean dauden hezkuntza sailaren proiektuen garapenean eta ebaluazioan parte hartzea: Eraldatzen, Hedatze.</p>	<p>a. Eraldatzen programaren garapenerako lantaldearen bilera guztietan parte hartu dugu. b. Izendatutako ikuskariak egokituak Eraldatzen ikastetxeetako tutorizazioa egin dute. c. Eraldatzen programaren ebaluazioan parte hartu dugu. d. Eraldatzen programari buruzko datuak jaso dira eta Hezkuntza Sailari helarazi zaizkio. e. Ikastetxeek Hedatze programaren kudeaketa egiteko programa informatikoa garatzeko lehendabiziko urratsak eman dira. f. Hedatze programaren ikasleen eta ekintzen datuak jaso dira. g. Esku-hartzeari buruzko jarraibideak helarazi zaizkie ikuskari guztiei.</p>	



		<p>h13. 13. Hezkuntza Saileko beste atal batzuekin batera egiten ditugun esku-hartzei buruzko hausnarketa egitea (egokitasuna, prozedura...), beharrezkoak diren doikuntzak eginez.</p>	<p>a. Gure esku-hartzearen hobekuntza-proposamenak egin dira, gutxienez 2.</p>
		<p>h14. 14. Ikuskaritzaren Urteko Plana ikastetxeetan ezagutaraztea.</p>	<p>a. Zuzendari guztiekin bilera egin da, gutxienez 1.</p>
	<p>d. Hezkuntza-komunitateak eta, oro har, herritarrek Hezkuntza Ikuskaritzak egiten duen jarduerari buruz duten ezagutza hobetzen.</p>	<p>h15. Ikuskaritzako web orria eguneratuta mantentzea, ikastetxeentzat eta, oro har, herritarrentzat interesgarria den informazioarekin.</p>	<p>a. Web orriaren jarraipena egingo duen lan-taldeak proposamenak egin ditu, gutxienez 3. b. Taldeak web orrian dagoen informazioaren eta dokumentuen jarraipena hiru hilabetero egin du, gutxienez. c. Web orriaren eguneratzeak nahiz hobekuntza proposamenak zentralera bidali ditu lantaldeak, eta aldaketa horien erregistroa egin da.</p>
<p>H4. Zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa hobetzen aurrera egitea:</p> <p><i>... gure jardueraren eraginkortasuna handitzeko</i></p>	<p>a. Arriskuen analisisan sakonduz, horiei erantzun eraginkor eta bizkorra emanez eta horiek doitzeko hartutako neurrien ebaluazio sistematikoa eginez.</p>	<p>h16. Aurreko ikasturteetan AZtan egindako analisiaren ondorioz hartu ziren erabakien jarraipena eta doikuntzak egitea.</p>	<p>a. Iaz analisia egin zuten AZ guztietan doikuntzak egin dira. b. Egindako doikuntzen eraginkortasuna edota inplementazioa aztertu da eta hurrengo hiru urteko planerako proposamenak egin dira.</p>
	<p>b. Jardunen efizientzia eta emaitzen hobekuntza bermatzen eta areagotzen duten prozedurak ezarri.</p>	<p>h17. Ezartzen ditugun helburuen egokitasuna eta koherentzia aztertzea eta helburuen lorpen-adierazleak finkatzea kalitate sistemaren eta eraginkortasunaren ikuspuntutik.</p>	<p>a. AZ guztietan helburu egingarriak finkatu dira. b. Kalitate batzordean, helburuen lorpen-adierazleak aztertu dira eta hobekuntza-proposamenak idatziz helarazi zaizkio AZ bakoitzari.</p>






		<p>h18. Kudeaketa aurreratuaren eredian aurrera egitea, Pertsonak elementua garatzen jarraitzea eta Berrikuntza elementua bultzatzea.</p>	<p>a. Kideen konpromisoa eta motibazioa sustatzeko Urteko Planean txertatutako jarduerak egin dira (hiru hilabetero bat) .</p> <p>b. Pertsonen ezagutza, konpetentziak eta talentua ezagutzeko tresna sortu da.</p> <p>c. Berrikuntza-proposamenak jasotzeko eta bideratzeko prozedura ezarri da.</p> <p>d. 5 berrikuntza-proposamen jaso dira, gutxienez.</p>
	<p>c. Digitalizazioa bultzatuz, prozesuen eta haien emaitzen plangintza, jarraipena eta kontrola optimizatzeko.</p>	<p>h19. Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren (V-92) aukerak aztertzea eta gaur egun dauzkagun beharretara egokitzea.</p>	<p>a. V92 aplikazioa, Sharepoint aplikazioa edo bestelako programa/aplikazioak zertarako erabiliko ditugun hausnartu da eta erabakiak hartu dira.</p> <p>b. V92ko lantaldearen eta EJI Eren arteko bilerak egin dira, gutxienez 5.</p> <p>c. V92an hobekuntza batzuk (gutxienez 3) egin dira.</p>
		<p>h20.  Ikuskarrien gaitasun digitala areagotzea.</p>	<p>a. Ikuskarion gaitasuna digitala akreditatuko duen prozedura abian jartzeko eskaria egin da.</p> <p>b. Gure eguneroko lanean, Office 365k eskaintzen dituen aukerei buruzko prestakuntza eman da.</p> <p>c. Digitalizazio batzordea sortu da.</p>
		<p>h21. Administrazioan oro har, eta gure sailean bereziki, gehien erabiltzen diren plataforma digitalen erabilera sustatzea ikuskarrien artean (Egoitza digitala, Hezigunea, Tramitagune, Ikasgunea, Sinadura digitala...).</p>	<p>a. Ikuskarrien %100ak sinadura digitala dauka.</p> <p>b. Tramitaguneraren ezaugarriei, balio praktikoari eta haren erabilerari buruzko formazioa eman zaie bai ikuskariei baita administratibo langileei.</p>



	<p>d. Prozesuetan oinarritutako kudeaketaren ikuspegiaren eta kudeaketa aurreratuaren eredurantz aurrera eginez.</p>	<p>h22. ISO 9001:2015 ziurtagiria berritzea. Ikuskaritzaren kalitate sistema aztertzea eta horren arabera erabakiak hartzea.</p>	<p>a. ISO 9001:2014 ziurtagiria berritu da. b. Kalitate Batzordeak ISO sistemak ezarritako arauaren arabera prozesuen azterketa egin du eta beraz hobetzeko proposamen bat egin du. c. Prestakuntza saio bat egin da gutxienez, plantillari kalitatea kudeatzeko ISO sistemaren ezaugarriak azaltze aldera. d. Hilean behin, Kalitate Batzordeko kideek barne-auditoretza ariketa bat egin du nahi izan duten ikuskariekin.</p>
<p>H5. Ikuskaritza-zerbitzuaren gaitasun profesionalaren hobekuntza globalean aurrera egitea, honako hauen bidez:</p> <p><i>... gure jardueraren eraginkortasuna handitzeko</i></p>	<p>a. Ikuskariek dituzten gaitasun profesionalen eta zerbitzuak eskatzen dituen espezializazio-eremuen deskribapena izatea, erreferentzia gisa balio dezaten ebaluazio-prozesuetan (LEP, Zerbitzu Eginkizunetan hautaketa) eta autoebaluazioan (prestakuntzari buruzko erabakiak).</p>	<p>h23. Ikuskariaren profila eta menperatu beharreko kompetentzien markoa eguneratzea.</p>	<p>a. Ikuskariaren profilean sakontzeko lan-taldea aktibatu da. b. Kompetentzien markoa eguneratu da. c. Kompetentzien marko berria ikuskaritzaren web-orrian argitara eman da.</p>
		<p>h24. Lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak garatzea, ikuskaritza-funtzioaren gaitasunak deskribatzen dituen tresna erabiliz.</p>	<p>a. Plantillan eman daitezkeen hutsuneak betetzeko ordezkoren zerrenda irekitzeko prozedura aurrera eraman da. b. Ikuskaritzan LEP antolatze eskaria egin zaio Pertsonal buruari.</p>
	<p>b. Informazioa komunikatzeko eta zabaltzeko prozeduretan sakontzea, bai eta parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko prozeduretan ere.</p>	<p>h25. Ikuskaritzaren komunikazio-bideak aztertzea, eta komunikazio-sistema eraginkorra sortzea.</p>	<p>a. Lurralde arteko batzordean komunikazio-bideak hobetzeko modua aztertu da hiru hilabetero. b. Ikuskaritzaren buletina hilabetero bidali da, IKUParen aurkezpenaren egunetik aurrera.</p>





	<p>c. Pertsonen inplikazioa, kide izatearen sentimendua eta erakundearen helburuekin bat etortzea sustatzea.</p>	<p>h26. Urteko zereginen banaketan, ikuskari bakoitzaren interesak eta ezagutzak kontuan hartzea motibagarria gerta dakion eta, horren bitartez, inplikazioa, kidesun-sentimendua eta erakundearen helburuekin bat etortzea areagotuz.</p>	<p>a. Lurraldeetan ikuskariren zeregin banaketa egiterakoan haien interesak eta ezagutzak kontuan hartu dira. b. 2023ko ekaina ikuskarion elkar-ezagutza sustatzeko ekintzak garatu dira, gutxienez 2.</p>
	<p>d. Prestakuntzaren eragina hobetuz eta ezagutzaren transferentzia bermatuko duten bideak ezarriz, erakundearen sartzen diren pertsonen gaitasunen garapenari arreta berezia jarritz.</p>	<p>h27. Ikuskari berrien harrera-prozesua berrikustea.</p>	<p>a. Ikuskari berrien harrera prozesua berrikusi da. b. Berrikuntzak idatziz jaso dira.</p>
		<p>h28. Ezagutza-galera gutxitzeko jakintzaren transferentzia egiteko prozedurak egituratzea.</p>	<p>a. Erretiroa hartzen duten ikuskariren jakintza erakundearen geratuko dela bermatzen duen prozedura idatzi da (jakintzaren transmisiorako plana).</p>
		<p>h29. Ikuskarion garapen profesionalerako Prestakuntza Plana diseinatzea, plantillaren eta Hezkuntza sistemaren beharrei erreparatuz.</p>	<p>a. Ikuskaritzaren Prestakuntza Planean aurreikusitako saioren %90 egin da.</p>
<p>H6. Beste erakunde batzuekiko lankidetzaprozesuetan aurrera egitea, aliantzak ezartzea eta berrikuntzaprozesuak bultzatzea, hobekuntzarako eta egokitzapen eraikitzailea etengabeko aurrerapena errazteko (ikaskuntza eta etorkizuneko ikuspegiarekin aurrera egitea ekarriko duena), langile guztiak inplikatu.</p>		<p>h30. Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneko beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko.</p>	<p>a. Hezkuntza Ikuskaritzak emaile bezala Berrikuntza sustatzen duten jardunbide bitan gutxienez parte hartu du Estatuan eta nazioartean. b. Gure ikuskaritzak Europako ikuskariekin lankidetzan aritzeko bileretan parte hartu du, gutxienez hiru hilabetean behin. c. Lurralde bakoitzeko fiskaltzarekin bilerak egin dira, gutxienez 1. d. Ikasturtean zehar Osakidetzako arduradunekin bilerak egin dira, gutxienez 1.</p>
		<p>h31.  Ikuskaritzako langileek ideia berritzaileak proposatzea bultzatuko duten prozedurak aktibatzea.</p>	<p>a. Ikuskarientzako iradokizunetarako postontzia ezarri da. b. Berrikuntza Batzordeak gutxienez 3 bilera egin ditu eta proposamenak egin ditu</p>





5. Kalitate Sistema

5.1. Hezkuntza ikuskaritzaren makroprozesuak eta prozesuak

Urteko plan honen helburuak lortzeko jarduera-ildoak eta martxan jarri beharko diren jarduerak deskribatu aurretik, jarduera horiek kudeatzen diren markoaren azalpen labur bat egin behar da.

Hirurteko Plan Orokorrean -misioan, ikuspegian eta balioen markoan adierazitako helburuak lortze aldera orientatzen ditu bere helburuak plan horrek- erabilitako ikuspegitik abiatuta, EAEko Hezkuntza Ikuskaritza, kalitatea kudeatzeko ISO 9001-2015 sistemaren arabera, ondorengo makroprozesuetan antolatzen da:

- **MP 01.-** Estrategia, Planifikazioa eta antolaketa.
- **MP 02.-** Zerbitzuak identifikatu eta ematea.
- **MP 03.-** Giza baliabideen kudeaketa.
- **MP 04.-** Dokumentuen kudeaketa.
- **MP 05.-** Baliabide materialen kudeaketa.
- **MP 06.-** Neurketa, analisia eta hobekuntza.

Makroprozesu hauek guztiak ematen diote Ikuskaritzaren jarduerari laguntza eta jardura hori, gehienbat, **MP02 ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA** makroprozesuan jasota geratzen da.

Halaber, **ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA MP02** lau prozesutan antolatzen da, eta lau prozesu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoan definitutako alderdiei ematen diete erantzuna.

- **PR Ikastetxeek eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea.**
Ikastetxeen hezkuntza-ikuskaritzarekin, batez ere, lotuta dauden azpiprozesuak sartzen ditu eta ikastetxeen funtzionamendua eta ikasleei ematen dieten hezkuntza-erantzuna, irakaskuntza-funtzioan aritzeko era eta zuzendaritza-funtzioa dira ardatzak. Jarduera horiek eremu horietan dauden premiak eta hobetzeko aukerak identifikatzera, hausnarketa egiteko prestakuntza-prozesuak sortzera eta, ondorioz, balorea emango duten eta irakaskuntzan hobeto aritzeko eta emaitzak hobeak izateko lagungarri izango diren proposamenak egitera bideratuta daude.
- **PR Arau-kontrola/Eskubide eta eginbeharrak bermatzea.**
Hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubide eta eginbeharrak betetzeko bermeari lotutako azpiprozesuak. Funtsezko erreferentea indarreko legeria izango da. Jardura horietan, gardentasuna, aukera-berdintasuna eta legeriaren izpirituaren arabekoak izango direla segurtatzea izango du Ikuskaritzaren jarduerak helburu.
- **PR Gatazkak konpontzea. Elkarbizitza.**
Ikastetxeetan elkarbizitza positiborako lagungarri izango diren balio, jarrera eta jarduerak sustatzeari eta hezkuntza-eremua guztiei errespetatuko zaien eta guztiak parte sentituko diren toki seguru baten gisa, fisikoki eta emozionalki, bizitzeko eskubidea bermatzeari lotutako azpiprozesuak dira. Elkarbizitzaren kudeaketari, eta eskola-jazarpenari, lotutako esku-hartzeak, portaerak zuzentzeko prozedurak, bitartekaritza-prozesuak, ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoak, funtzionario publikoen diziplina-erregimenaren garapena, berdintasuna eta hezkidetzaren sustatzeko prozesua, babesgabeziaren kontrako protokoloak gauzatzea, ... sartzen ditu. Ikuskaritzaren esku-hartzeak gardentasuna, laguntza eta arau-aholkularitza ematen ditu eta, batez ere, gatazkak behar bezala kudeatuko direla bermatzen du, esku-hartze horien emaitza zuzena izan dadin, guztien eskubideak berma ditzan eta elkarrekin bizitzeko gaitasuna garatu eta hobetzeko prozesua susta dezan.





– **PR Programen jarraipena. Sistemaren helburuak.**

Programa espezifikoaren jarraipenari lotutako azpiprozesuak dira; izan ere, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik eta Hezkuntza Sailburuordetzatik jartzen dira programa horiek martxan, hezkuntza sistemaren helburuak lortzeko eta horretarako une bakoitzean sustatzen diren ildo estrategikoak aurrera eramateko laguntza eraginkorragoa eman dezaten ikastetxeek. Ikuskaritzaren esku-hartzea programa horien garapena erraztera eta sustatu dituzten helburuak bete diren edo ez baloratzera bideratuta egongo da.

Hezkuntza Ikuskaritzako Kalitate Batzordeak hala proposatuta, 2022-2023 ikasturtean Ikuskaritzak aurrera eramango dituen jarduerak, 6 Azpiprozesuetan eta hainbat Prozeduratan sailkatuko dira. Hauetaz gain, Batzordeak ere antolatu dira.

Hona hemen Azpiprozesu eta prozesuaren ñabarmen batzuk:

- **Azpiprozesua:** Azpiprozesu batek Helburuak, Lorpen adierazleak eta Ekintza plan bat izango ditu. Urte bukaeran Memoria bat egingo da, non urtean zehar egondako gorabeherari buruz hitzegiten den, urteko datuak jasotzen diren eta hobekuntza proposamenak adierazten diren.
- **Prozedura:** Prozedurak, burutu behar diren ekintzak dira. Helburu zehatzik ez izatea izan daiteke. Memoria egitea komenigarria da zeren eta ekintza hauetatik eratorriko datuak behar dira ikasturteko Memoria Orokorreko, baina ez da derrigorrezkoa Hobekuntza proposamenak adieraztea.

Prozeduren kudeaketa, dokumentazioari begira, Azpiprozesuak baino arinagoak direla esan genezake.

V-92ra begira, Prozedurak orain arte tratatu diren bezala kudeatuko dira, hau da, Azpiprozesuak balira bezala, are gehiago, kodifikazio bera izango dute.

Prozedurak identifikatzeko, desberdintasun bakarra, AZ hizkien aurretik **PROZEDURA** hitza agertuko dela.

Adibidea:

Orain arte: **AZ022050 DAE EJA kontrola**

Aurrerantzean: **PROZEDURA AZ022050 DAE EJA kontrola**

2022-2023 ikasturtean Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuaren eremuan sakonduko dugu. Horretarako berriazko prestakuntza antolatuko da.



Hona hemen, 2022-2023 ikasturtera begira, **Azpiprozesuen**, **Prozeduren** eta **Batzordeen** zerrenda berriua:

Azpiprozesuak (AZ)

1. **AZ021313** Praktiketako funtzionarioak;
2. **AZ021320** Zuzendaritza funtzioa
3. **AZ02207** Curriculuma eta ebaluazioa;
4. **AZ022386** Ikasleen absentismoa;
5. **AZ023387** Eskola-jazarpena eta Bizikidetzaren planak (Bizikasi)
6. **AZ023012** Irakaskuntzarako gaitasuna (Irakasteko Konpetentzia)

Prozedurak

- | | | |
|---|--|--|
| 1. Ikastetxeen ikuskatzea | 13. Lanpostuaren profilera egokitzeari buruzko ebaluazioa | 25. Gogobetetzea neurtzea |
| 2. Zuzendarien taldeen hautaketa | 14. DAE EJA kontrola | 26. V92 aplikazioa Hezkuntza Ikuskaritza |
| 3. Zuzendaritza taldeen izendapena | 15. Ikasleen eta langileen grebak | 27. Elkarriketa-laguntzaileak |
| 4. Zuzendaritzakoak ez diren karguak | 16. Eskola egutegiak eta ordutegiak | 28. Ikuskarrien harrera eta tutoretza; |
| 5. Eskariak / Jakinarazpenak | 17. NCE eta curriculuma malgutzeko neurriak | 29. Koaderno digitala |
| 6. Kalifikazioen aurkako errekamazioa | 18. Irakasleen absentismoa | 30. Ikuskaritzaren digitalizazioa prozesua |
| 7. Euskara salbuespenak | 19. Irakasleen titulazioak | 31. Irakasleen atxikipenak |
| 8. Ikasleen jokabideak zuzentzeko prozedurak | 20. Ikastetxe publikoetako langileei egindako erasoen kasuak | 32. Batxilergoko sari bereziak |
| 9. Eraldatzen | 21. Eskolatzeko Programa Osagarriak | 33. Jazarpen-aginduan oinarritutako bitartekaritza |
| 10. Hedatze | 22. Etxean eman beharreko hezkuntza-arreta | 34. Eskolatzeko batzordeak |
| 11. Lanpostuaren profilera egokitzeari buruzko ebaluazioa | 23. Kide anitzeko organoak aukeratzea | 35. Lekualdatze-lehiaketen baremazioa |
| 12. Akta akademikoak eta eskola emaitzak | 24. Probak aplikatzearen kontrola | 36. Unibertsitatera sartzeko ebaluazio-proba |
| | | 37. Enplegatu publikoen diziplina-araubidea |

Batzordeak

- | | |
|---|---|
| 1. Lanbide heziketako batzordea | 6. Euskararen erabilera batzordea |
| 2. Kalitate batzordea | 7. Berdintasun planaren batzordea |
| 3. Eguneratze normatiborako batzordea (Lex) | 8. Kanpo ekimena batzordea |
| 4. Berrikuntzaren zaintza batzordea | 9. Ikuskaritzaren digitalizazio batzordea |
| 5. Ikuskatze batzordea | 10. Irakaskuntza-funtzioa batzordea. |

Azpiprozesuen, Prozeduren eta Batzordeen arduradunak, plan honen **II. eranskinean** kontsulta daitezke.

Gainera, **MP-01**, **MP-06** eta **MP-03** makroprozesuen markoan ondorengo jarduerak egiten dira:

MP-01.- ESTRATEGIA, PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKETA eta **MP-06.- NEURKETA, ANALISIA ETA HOBEKUNTZA:**

Ikuskaritza-zerbitzuak estrategia hobea izateko, egitura eta antolaketari begira, eraginkorragoa izan dadin egin beharrekoak, jardueraren emaitzak hobekuntza izatea sustatze aldera.





Egungo azpiprozesuen helburuak berrikusi eta egokitzea, 2020-2023ko hirurteko planaren eta 2022-2023ko urteko plan honen helburuetara egokitzen diren edo ez segurtatzeko; arriskuen analisia, emaitzen analisia, puntu indartsuetan sakontzeko, aukerak aprobetxatzeko eta hurrengo ikasturtean inplementatu daitezkeen hobekuntzak planifikatzeko.

MP-03.- GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA:

Pertsonen gaitasun profesionalak hobetzeko jarduerak eta ezagutza ez galtzeko eta inplikazioa, partehartzea eta kide sentitzearen sentimendua areagotzeko estrategiak.

Era berean, Ikuskaritzako kide berriei tutoretza emateko eredia sustatzen duen taldearen lana ere jasotzen da, bai zerbitzu eginkizunetan, bai praktika-fasean daudenak. Horretaz gain, ikuskaritza eskumen-profilaren berrikuspena; ebaluazio-prozesuak; eta Ikuskaritzaren prestakuntza-plana moduko ekimenak biltzen ditu.

Prozesu eta makroprozesu horietan jasotako jardueraz gain, Ikuskaritzak hezkuntza-administrazioarekiko lankidetzajarduera askotan parte hartzen du. Lankidetzak puntual edo sistematikoko eskaerei erantzuten dieten jarduerak dira. Aurreikusi gabeko edo hainbat arrazoiengatik garrantzi berezia hartu duten egoerei lotutako premiazko edo oso garrantzizko gaiei buruzko txostenak egitea barne hartzen dute hainbatetan. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Beste zerbitzu batzuek sustatutako prestakuntza-jardunaldietan laguntzea.
- Lan Eskaintza Publikoetan parte-hartzea.
- Herritarrek Hezkuntza Sailari egiten dizkieten kontsultei erantzunak prestatzea.
- Beste erakundeek planteatutako gaiei buruzko txostenak (Arartekoa, Fiskaltza, Legebiltzarra...).
- Sailaren programak diseinatzen eta sustatzen parte hartzea.
- Sailaren ordezkariak zenbait forotan.



6. 2022-2023 Ikasturteko jarduerak

6.1. Jarduera Giltzarriak 2022-2023 ikasturtean

2022-2023 ikasturterako ikuskaritzaren jarduera-giltzarriak finkatzeko garaian, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Testuinguru-alderdi esanguratsuenak (arautegi berria, curriculum...).
- Urteko planaren helburuekin lotura.
- Gure esku-hartzeak ikastetxeetan duen inpaktua.
- Gizartearen eskaerak eta eragina.
- Hezkuntza Sailaren helburuak eta eskaerak.

Aurrekoa kontuan harturik, hauek dira 2022-2023 ikasturteko jarduera-giltzarriak:

- a. Curriculum eta ebaluazioa. BeA.
- b. Ikasleen eta irakasleen ongizatea.
- c. Lidergoa.
- d. Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioa. Praktiketako funtzionarioak.
- e. Ikastetxeen ikuskaritza.
- f. Hezkuntza Sailean elkar lanean, Saileko programa-proiektuak: Eraldatzen eta Hedatze
- g. Ikuskaritzaren hobekuntza.

a. Curriculum eta ebaluazio-eredua. BeA

LOMLOEren ondoren ezarritako curriculum berriaren inplementazioa da, zalantzarik gabe, ikasturte honetako erronkatariko bat. Prozesu horretan ikastetxeen ondoan egon behar dugu, haien jardunaren inguruko hausnarketan lagundu eta curriculumak eskatzen dituen egiteko modu berriak sustatu. Curriculumaren elementu berriak, horien araberrako programazioak, eremukako antolaketa, metodologia, irteera profil berritua... Askok dira 2022-2023 ikasturte honetako curriculumaren eremuan dakartzan aldaketak, eta ikuskaritzak erreferente izan behar du ikastetxeentzat. Kontuan hartu behar da, gainera, trantsizio ikasturtea dela, bi dekretu indarrean dauzkana aldi berean maila desberdinetan. Egoera horretan, ezinbestekoa da ikuskaritzatik lasaitasuna transmititzea ikastetxeei. Malgutasunez jokatu dugu, bidean lagunduz.

Bestalde, Curriculum berriak agerian jarri du berria ez den baina oraindik berri egiten den kompetentzietan oinarritutako ebaluazio-eredua. Jakina da ebaluazioa aldatzen ez bada nekez aldatuko dela ikaskuntza-irakaskuntza prozesua eta, horrenbestez, kompetentzien ebaluazioan sakontzeko urratsak eman beharko dira.

Berrikuntza Arduradunaren figura ezarri da ikastetxeetan estreinakoz ikastetxeetan egin behar den eraldaketa hori kudeatzeko, besteak beste. Hezkuntza Sailak berrikuntzarako egin duen apustu garrantzitsua da, eta ikuskarion esku-hartzea aldagai garrantzitsua izango da horren jarraipenean.

Hauek izango dira, beraz, gure egitekoak:

- Ikastetxeetan egokitzen ari diren programazioen jarraipena egin, malgutasunez eta bidean lagunduz.
- Curriculumaren aspektuen identifikazioan lagundu.
- Ebaluazioari buruzko gogoeta egiten lagundu.
- Irteera profilaren inguruko gogoeta piztu.
- BeAren lanaren jarraipen egin.
- Lasaitasuna Transmittitu.



Lan hau egiteko, bi lantalde ezberdin baina koordinatu egongo dira: bat ikuskaritzari begira, gure zeregina zehaztuko duena; beste bat, Berritzegunearekin elkarlanean, ikastetxeei begira.

b. Ikasleen eta irakasleen ongizatea

Azken urte hauetan ikastetxeetako bizikidetzaren positiboaren zaintza konstante bat izan da ikuskaritzan. Ikasleen kasuan, eskola-jazarpenaren kudeaketa eta jarraipena eta ikasleen jokabideak zuzentzeko prozedurak izan dira gure esku-hartzean modu antolatua eta sistematikoan garatu ditugunak.

Jokabide erreaktiboaz haratago, bizikidetzaren positiboari probentzietatik eragiteko pausuak eman nahi dira 2022-2023 ikasturte honetan; hau da, krisiak eztanda egin aurretik gatazkan esku hartzeko tresnak garatzen lagundu ikastetxeei.

Ikasleen ongizatea helburu, ikastetxeek leku segurua izan behar dute eskola-komunitatea osatzen duten ororentzat, eta ikasleentzat bereziki. Bizi izan dugun pandemiak agerian jarri du ikasleen ongizate emozionalari erreparatzeko beharra, eta Hezkuntza Sailaren ildoetako bat da 2022-2023rako.

Honako hauek garatuko ditugu horretarako, besteak beste:

- Bizikasi eredu berriari erreparatuz, elkarbizitza positiboaren sustapena egingo da, probentzietatik eraginez.
- 2021-2022 ikasturtean 201/2008 Dekretua dela eta egin zen lanari jarraikiz, Dekretuak jasotzen dituen bide alternatiboak indartzeko bidea egingo da.
- Jazarpen kasuen kudeaketarekin jarraituko dugu. Jarraipen-egoeran geratu ziren jazarpen kasuetan, 2021-2022 ikasturtean hasitako prozedura zabalduko da.
- Ikasleen ongizaterako eta babeserako koordinatzaileen eta haien funtzioen jarraipena egingo dugu.
- Hezkidetzaren sustapenean jarraituko dugu.
- Hezkuntza Sailak ikasleen ongizaterako publikatuko dituen protokoloa, jarraibide edota bestelako azterketa eta zabalkundea:
 - Suizidioaren protokoloa.
 - Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jarraibideak.

c. Lidergoa

Ikastetxeen arrakastarako gako nagusienetarikoa bat Zuzendaritza-taldearen lidergoa eta egonkorasuna da. Zuzendaritza taldeek ikastetxearen funtzionamendura, bizikidetzara eta elkarlanera bideratuta egon behar dute. Horretaz gain, zuzendaritza taldeen ahaleginak lankidetzara, irisgarritasunera, harremanetan inbertitzera, arriskuak hartzera, gogoeta egitera eta erabakiak gardentasunez hartzera egon behar dute zuzenduak.

Eskola-lidergoa lotuta dago ikastetxearen misioarekin eta bere helburuak argi eta garbi zehaztuta izatearekin; ikastetxeko eta ikasgeletako eskola-giro orokorrarekin; irakasleen jarrerarekin; irakasleek ikasgeletan dituzten jardunbideekin; ikasketa plana eta irakaskuntza antolatuta dauden moduekin; eta ikasleek ikasteko dituzten aukerekin.

Zuzendaritza taldeek eskola-giroan eta ikastetxearen antolaketan duten eragina nabarmena da. Zuzendaritzak behar diren baldintzak eta testuingurua sortu behar ditu, besteak beste, irakasleek beren lan-jarduna hobetu dezaten. Horregatik, ikasturte honetan ere zuzendaritzari lagunduko zaie, haien prestakuntzan parte hartuz eta bidelagun izanez, beren lana ahalik eta modu profesionalenean egin dezaten.

Zuzendaritzari bikaintasunerantz orientatuko zaie, konpetentzien gida lerroen bidez, uneoro adieraziz ze gaitasunak eskuratu behar dituzten.

Zuzendaritza taldea lidergoan ahalduntzea, honek ikastetxearen emaitzetan, motibazioan eta inplikazioan eragintzen duelarik, eta ondorioz ikastetxearen kalitatean.





Ahalduntze hori gauzatu ahal izateko, Ikuskaritzatik, zuzendaritza taldeekin elkarlanean aritzeko giroa suspertuko da.

d. Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioa / Praktiketako funtzionarioak

Irakasle funtzionario izangaiak EPE-ko praktikaldia gainditu ahal izateko, Kalifikazio Batzordearen azkeneko ebaluazioa jaso baino lehenago, ikasturtean zehar izandako laguntzaz baliatuz, haien ikastetxeetako esperientziadun tutoreek, zuzendariek eta Hezkuntza Ikuskariek egindako balorazio positiboan jaso behar dute, irakaskuntzarako beharrezko kompetentziak garatu dituztela baieztatze aldera. Horretarako, gutxienez hilabetean behin tutoreek praktikaldian dauden irakasleen gelak bisitatzeari lehentasuna ematen zaio, irakaskuntza-praktikari buruzko hausnarketa sustatzeko eta hobekuntza proposamenak helarazteko.

Prozesu honetan Hezkuntza Ikuskaritzak praktiketako irakasleen geletan egindako behaketari lehentasuna ematen dio. Horretaz gain, prozesu formatibo osoaren koordinazioa eta jarraipena bere gain hartzen ditu.

Ikasturtean zehar egindako ebaluazio formatiboaren prozesu honek irakaslearen profilararen eta irakaskuntza funtzioaren alderdirik garrantzizkoenak hartzen ditu oinarri, besteak beste, irakaskuntza praktikaren planifikatzea, irakaste eta ikaste prozesuen kudeaketa zuzena gelan (gaitasunak garatzeko metodologiak, ikasleen aniztasunari arreta eta ongizate emozionala, lan egiteko giro egokia, e.a.) ikasleen ebaluazioa eta jarraipena, ikasleen tutoretza eta orientabidea baita familien harremanetan ere, Eskola Komunitatearekiko partaidetza eragilea eta izangaiaren formazio iraunkorra. Hau guztia, ikastetxeetako Gobernu Organoekiko kolaborazio aktiboan, ikastetxeko jardunaren partaidetza eraginkorrean, gainontzeko irakas kideekin etengabeko koordinazioan, lankidetzan eta Eskola Komunitatearekiko bizikidetzan positiboan.

e. Ikastetxeen ikuskatzea

Hezkuntza-ikuskaritzak ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko eta, horrela, ikasleei hezkuntza-erantzun onena ematea sustatzeko eredu bat finkaturik du. Eredu hori proaktiboa da. Hasteko, ikasturte bakoitzaren hasieran, esku hartzeko helburuak planifikatzen dira, eta, amaitzeko, hobekuntza-proposamenak egiten zaizkio ikastetxeari, ikasturtean egindakoa ikuspegi global eta sistemiko batetik aztertu ondoren. Horretarako, ikastetxean eta ikastetxearekin egiten diren ekintza guztiak integratu eta erlazionatu beharko genituzke. Planteamendu horrek, laguntza eta aholkularitza teknikoaz gain, ikastetxeetan beren jarduerari buruzko hausnarketa-prozesuak bultzatzea eskatzen du, etengabeko ikuskuntza eta hobekuntza errazteko.

Ikastetxeen ikuskatzea ikuspegi holistikoa horretatik egiteko, AZ022004 lantaldetik ikastetxearen osotasunean eragiten lagunduko duten jarduerak proposatuko ditugu ikasturtean zehar, hiru hilabetero, marko orokor bat emanez erreferentziatzeko ikuskari bakoitzak ikastetxean egiten duen lanari, ikasturte honetako ikuskaritzaren helburuekin eta Hezkuntza Sailaren lehentasunezko ildoekin bat eginez.

2020-2021 ikasturtean eman zitzaion hasiera ikuskatze antolatua eta orokor honi, 2020-2023 hiru urteko helburuak garatzeko. Ikasturte hori Covid-19ak eragindako pandemiak baldintzatu zuen erabat, eta ikastetxeetan pandemiari aurre egiten laguntzeko tresna izan zen jarduera hau. 2021-2022 ikasturtean ikastetxeetan eragiteko eremuak finkatu ziren, eta horietatik abiatuta ikastetxe bakoitzaren eta Hezkuntza Sistemaren diagnostikoa egin ahal izan zen hainbat alderditan. 2022-2023 ikasturte honetan lan horri jarraipena eman behar diogu, iazko diagnostikoa abiapuntutzat hartuz ikastetxeetan aurrerapausoak ematen lagunduz.

Hezkuntza ikuskaritzaren funtzio diren aholkularitza, ebaluazioa eta kontrola uztartuko dira esku-hartzean, eta hainbatetan datu-bilketa egingo da V-92aren bitartez, ikastetxe bakoitzaren garapenaren erregistroa egiteko eta Hezkuntza Sailari hainbat alderdiri buruzko informazioa emateko.

f. Hezkuntza Sailean elkar lanean, Saileko programa-proiektuak: Eraldatzen eta Hedatze.

Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunetako bat da Hezkuntza Sailak sustatutako proiektuen jarraipena egitea, lortu nahi diren helburuen lorpen-maila egiaztatzeko. Gainera, helburu horietako asko diseinatzen eta garatzen laguntzen du. Testuinguru horretan, 2022-2023 ikasturtean, Bigarren Hezkuntzako 76 ikastetxe publiko eta 52 itunpekotan garatzen





ari diren **HEDATZE** proiektua batetik, eta, bestetik, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 56 ikastetxe publikotan aurrera eramaten ari diren **ERALDATZEN** Kontratu Programa azpimarratuko genituzke.

- **HEDATZE:** Proiektua deitzen duen Ebazpenak dioen moduan, Proiektua zehazteko, ikastetxeek hezkuntza-ikuskaritzaren eta Berritzeguneeen aholkularitza izango dute. Orobat, jarraipena, ebaluazioa eta parte hartzen duen ikastetxe bakoitzaren proiektuaren helburuen betetze-maila aztertzea, Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio.
- **ERALDATZEN:** Programa honek, Berritzeguneko eta Hezkuntza Ikuskaritzako aholkulariekin lankidetzan, lortu nahi du ikastetxeek hiru ikasturterako plangintza estrategiko bat egitea. Ikastetxeek Sailarekin sinatutako kontratu programa honen barruan, ikuskarion esku-hartzea ezinbestekoa da. Gure esku hartzea bi planoetan garatuko da aldi berean: lehenean, sailak proiektu hau aurrera eramateko berariaz sortutako Batzorde estrategikoan eta teknikoan parte hartuz; bigarrean, ikastetxeko erreferentziako ikuskariak programaren jarraipena eta ebaluazioa eginez bere ohiko jardueraren arloan eta ikastetxearen ikuskapenaren barruan. Lan hori ikastetxean erreferentziako ikuskariak egingo du ikastetxeko Eraldatzen programaren tutorearekin eta ikastetxe bakoitzean ezarritako talde eragilearekin koordinatuta.

Proiektu hauen inguruko ikuskarion esku-hartze zehatza, bakoitzeko berariaz sorturiko ikuskaritzako lan-taldeek zehaztuko dute.

Orobat, Hezkuntza Ikuskaritzak parte hartuko du Sailean atal desberdinen artean egiten diren koordinazio bileratan, gure eskuhartzea Sailak ezartzen dituen ildo estrategikoekin bat egin dezan eta ikastetxeetara Saitetik iristen den mezuak kontraesanetan eror ez daitezen.

g. Ikuskaritzaren hobekuntza

Eskaintzen dugun zerbitzuaren hobekuntza, Hezkuntza Ikuskaritzaren etengabeko erronka izan da betidanik. Gizartearen eskakizun berrietara egokitzeko, eta, ahal den guztietan, aurre hartzeko gaitasuna duen Ikuskaritza bat nahi dugu. Estrategia garbi bat edukiz eta lorgarriak eta bideragarriak izango diren helburuak ezarri; geldirik ez dagoen erakunde bat gara.

88 kideez osaturiko erakunde honetan, partekatutako lidergo bat eraikitzeak oinarri behar du izan. Irakaskuntzan aldaketarako eta hobekuntzarako bektorea izan nahi badugu, lider pedagogikoak ere izan behar dugu, irakasleei laguntzeko eta aholkularitza kualifikatua emateko. Hezkuntzako ikuskariek lehentasuna eman behar diete ikastetxeetan egiten dituzten jarduerari, modu horretan bakarrik lagunduko baitzaie aldaketei, jardunbide egokiak sustatuz eta bultzatuz konfiantzazko eta autogogoetako giroan. Horretarako, ikuskariek gaitasun profesional egokiak garatu behar dituzte, ezagutza teknikoak eta teorikoak modu orekatu eta egokian uztartuz.

Orobat, bistan da, Hezkuntza Ikuskaritza ezin dela ikastetxeetako bizikidetzaren inguruetik urrun egon. Pertsonen arteko harremanak, harreman sozialak eta profesionalak nahasten diren esparru delikatu eta funtsezko horri lagundu behar dio.

Ingurumaria honetan, hezkuntzako ikuskarien kompetentziak garatzea ezinbestekoa da, besteak beste, erresilientzia, gaitasun digitala eta enpatia sustatuz. Eta, jakina, hau guztia lortu ahal izateko etengabeko prestakuntza ezinbesteko dela irizten diogu, ikuskarion eginkizunak eta jardunak garatzen lagunduko duena, espezifikotasun- eta kualifikazio-baldintza batzuen pean.

Guztiarekin, 2022-2023 ikasturtean, besteak beste, elementuon azpimarra egingo dugu: Erakundearen helburuen egokitasuna; Berrikuntza; Pertsonen elementua; Ikuskarion gaitasun digitala; Kalitate sistema osatzen duten elementuen azterketa; Ikuskarien kompetentzien eguneraketa; Ezagutzaren galera ekiditeko plana; eta, kanpoko ikuskaritzekin harremana.





6.2. 2022-2023 Ikasturteko jarduerak

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hauek dira 2022-2023 ikasturterako aurreikusten diren jarduerak:

H1. HIRU URTEKO HELBURUA: Hezkuntza Ikuskaritzak indarrean dagoen araudiak hezkuntza komunitateari aitortzen dizkion **eskubideak eta betebeharrak bermatzeko** egiten duen ekarpenean aurrera egitea

Helburua 2022-2023	Jarduerak	Garatze eta lorpen - epeak	Modu nabarmenean inplikaturako lan - taldeak.
<p>1. Ikasleen eta irakasleen ongizatea sustatzeko estrategiak garatzea, elkarbizitzari probentziotik eraginez Bizikasik ezartzen duenari jarraituz.</p>	<p>a. 2021-2022 ikasturtean hasitako 201/2008 Dekretuaren errebisioarekin jarraitu eta neurri alternatiboak indartu.</p> <p>b. Eskola-jazarpen kasuen kontrola eta jarraipena.</p> <p>c. Hezkuntza-eremuan jokabide suizidaren prebentzioa, esku-hartzea eta posbentzioa egiteko strategiari buruzko prestakuntza gauzatu plantilla osoarentzat..</p> <p>d. Ikastetxeen hezkidetzatza diagnostikorako tresnaren diseinuan parte hartu.</p> <p>e. Ikastetxe publikoetako langileei egindako eraso kasuetan esku-hartu.</p>	<p>a. 2023ko otsaila</p> <p>b. Ikasturtean zehar</p> <p>c. 1. hiru hilabetea</p> <p>d. 2023ko apirila</p> <p>e. Ikasturtean zehar</p>	<p>AZPI-PROZESUA: AZ023387 Eskola-jazarpena eta Bizikidetzatza-planak (Bizikasi)</p> <p>PROZEDURAK: AZ022004 Ikastetxeen ikuskatzea AZ023081 Ikasleen jokabideak zuzentzeko prozedurak AZ023091 Ikastetxe publikoetako langileei egindako eraso kasuak</p> <p>BATZORDEAK: Berdintasun planaren batzordea</p>
<p>2. Eskola komunitateko kideen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko ikuskaritzak egiten dituen zereginak dagozkien prozeduren arabera jardutea, horiei buruzko informazioa izatea eta beharrezkoak diren doikuntzak egitea.</p>	<p>a. Gure prozeduren errebisioa egin.</p> <p>b. Ikasleen absentismoaren kontrola egin.</p> <p>c. Euskaratik salbuesteko eskaeren kontrola egin.</p> <p>d. NCEn kontrola egin.</p> <p>e. Etxean eman beharreko hezkuntza-arretaren kudeaketa egin.</p> <p>f. Ikastetxeen betebeharren kontrola egin: EJA, irakasleen absentismoa, irakasleen titulazioa itunpeko ikastetxeetan, kide anitzeko organoen</p>	<p>a. 2023ko ekaina, (lantaldearen arabera).</p> <p>b. Ikasturtean zehar</p> <p>c. Ikasturtean zehar</p> <p>d. 2023ko abendua</p> <p>e. Ikasturtean zehar</p> <p>f. Ikasturtean zehar</p>	<p>AZPI PROZESUA: AZ023387 Eskola-jazarpena eta Bizikidetzatza-planak (Bizikasi) AZ021371 Curriculum eta ebaluazioa AZ022386 Ikasleen absentismoa AZ023095 Enplegatu publikoaren diziplina-araubidea AZ023012 Irakaskuntzarako gaitasuna (Irakasteko Konpetentzia)</p> <p>PROZEDURAK: AZ022004 Ikastetxeen ikuskatzea</p>






	<p>aukeraketa, proben aplikazioa, zuzendaritzakoak ez diren karguak...</p> <p>g. Irakasleek haien betebeharrak betetzen ez dituzten kasuetan esku-hartu.</p>	<p>g. Ikasturtean zehar</p>	<p>AZ023081 Ikasleen jokabideak zuzentzeko prozedurak AZ023082 Kalifikazioen aurkako erreklamazioa AZ021311 Lanpostuaren profileraren egokitzeari buruzko ebaluazioa AZ022093 Akta akademikoak eta eskola emaitzak AZ0233092 Ikasleen eta langileen grebak AZ022355 Eskola egutegiak eta ordutegiak AZ022073. NCE eta curriculumaren malgutzeko neurriak AZ022353 Irakasleen absentismoa AZ022385 Irakasleen titulazioak AZ022324 Eskolatze Programaren Osagarriak Jazarpenera-eraginduan oinarritutako bitartekaritza Eskolatze batzordeak AZ022050 DAE EJA kontrola AZ022354 Kide anitzeko organoen aukeraketa AZ022317 Probak aplikatzearen kontrola AZ022061 Zuzendaritzakoak ez diren karguak</p> <p>BATZORDEAK: Berdintasun planaren batzordea</p>
<p>3. Familiek, ikasleek... ebaluazioari buruzko informazioa jaso dutela bermatzea.</p>	<p>a. Ebaluazio objektiborako eskubidea bermatzeko ikastetxeek duten prozedura gainbegiratu (AJA...).</p> <p>b. Ikasleen ebaluazio objektiborako eskubidea bermatzeko estrategia eraginkor eta baliozkotuen diseinua egin.</p> <p>c. Ebaluazio/kalifikazio irizpideak zehaztuta daudela eta ezagutzera ematen direla kontrolatu eta jarraipena egin (programazioetan ebaluazio atala, gurasoekin bileretako egutegia, gai zerrenda ...)</p> <p>d. Ebaluazio saioak ikasturte hasierako ebazpenak dionaren arabera egiten direla gainbegiratu eta jarraipena egin (saioretako egutegia, egutegia).</p>	<p>a. 2022ko abendua</p> <p>b. 2023ko apirila</p> <p>c. 2022ko abendua</p> <p>d. 2022ko abendua</p>	<p>AZPI-PROZESUA: AZ021371 Curriculumaren eta ebaluazioa</p> <p>PROZEDURAK: AZ022004 Ikastetxeen ikuskatzea AZ023082 Kalifikazioen aurkako erreklamazioa AZ022093 Akta akademikoak eta eskola emaitzak</p>



<p>4. Administrazioari proposamenak egitea ikasturte honetan eskubide eta betebeharrekin lotuta aterako den araudia garatzeko: curriculuma, ebaluazioa, zuzendaritza, aniztasuna, eskola-antolaketa...</p>	<p>a. Lantaldeak osatu beharrezkoa den araudia aztertzeko eta garatzeko. b. Arauen inguruko txostena / proposamenak dagokionari helarazi.</p>	<p>a. Ikasturtean zehar b. Ikasturtean zehar</p>	<p>AZPI-PROZESUA: AZ021313 Praktiketako funtzionarioak AZ021371 Curriculuma eta ebaluazioa AZ021320 Zuzendaritza funtzioa</p> <p>PROZEDURAK: AZ022073 NCE eta curriculuma malgutzeko neurriak AZ023081 Ikasleen jokabideak zuzentzeko prozedurak AZ022355 Eskola egutegiak eta ordutegiak AZ022093 Akta akademikoak eta eskola emaitzak</p> <p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea</p>
--	---	--	---

H2. HIRU URTEKO HELBURUA: EAEko ikuskaritzak ikastetxeetan duen **esku-hartze ereduaren** efikazia eta efizientzia hobetzen aurrera egitea:

Helburua 2022-2023	Jarduerak	Garatze eta lorpen - epeak	Modu nabarmenean inplikaturako lan - taldeak.
<p>5.  Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, arreta berezia jarritz antolaketan, ikasleen ebaluazioan eta BeAren eginkizunetan</p>	<p>a. Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzerako jarraibideak prestatu eta plantilla osoari helarazi, denok modu bateratuan esku-hartzeko. b. Berritzegunearekin koordinazioa. c. Ikuskarientzako prestakuntza antolatu.</p>	<p>a. 1. hiru hilabetean b. Ikasturtean zehar c. Ikasturtean zehar</p>	<p>AZPI-PROZESUA: AZ021371 Curriculuma eta ebaluazioa</p> <p>PROZEDURAK: AZ022004 Ikastetxeen ikuskatzea Koaderno digitala AZ022093 Akta akademikoak eta eskola emaitzak</p> <p>BATZORDEAK: Ikuskatze batzordea</p>



<p>6.  Ikastetxeetako lidergoan eragiten jarraitzea</p>	<p>a. Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioaren diseinu berria amaitu.</p> <p>b. Zuzendarien hautaketa-prozesuetako batzordeetan parte hartu.</p> <p>c. Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioa egin dagokion kasuetan.</p> <p>d. Zuzendaritzarako hautagairik ez dagoen ikastetxeetan berriazko esku-hartzea egin bide-orriari jarraiki.</p>	<p>a. 2023ko apirila</p> <p>b. 2023ko apirila</p> <p>c. Ikasturtean zehar</p> <p>d. Ikasturtean zehar</p>	<p>AZPI-PROZESUA: AZ021320 Zuzendaritza funtzioa</p> <p>PROZEDURAK: AZ021359 Zuzendarien taldeen hautaketa AZ021360 Zuzendaritza taldeen izendapena</p>
<p>7. Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoak ikastetxeetan inplementatzen direla ikuskatzea, informazioa jasotzea, aholkatzea, orientatzea.</p>	<p>a. Ikuskatzea egiteko jarraibideak idatzi.</p> <p>b. V-92-an galdetegiak jaurti.</p> <p>c. Lortutako informazioaren irakurketa egin eta ondorioak atera, dagokionari helaraziz.</p>	<p>a. Hiru hilabetero.</p> <p>b. Hiru hilabetero.</p> <p>c. 2023ko ekaina</p>	<p>AZPI PROZESUA: AZ023387 Eskola-jazarpena eta Bizikidetzaren planak (Bizikasi) AZ021371 Curriculum eta ebaluazioa AZ021320 Zuzendaritza funtzioa</p> <p>PROZEDURAK: AZ022004 Ikastetxeen ikuskatzea AZ021359 Zuzendarien taldeen hautaketa</p>
<p>8.  Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioan aurrera egitea.</p>	<p>a. Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa egiteko jarraibideak idatzi.</p> <p>b. Ikastetxeetan bilerak egin tutoreekin eta zuzendareekin.</p> <p>c. Praktiketako funtzionarioen gela-behaketak egin.</p> <p>d. Irakasle-profilaren dokumentua osatu.</p> <p>e. MEFPK irakaskuntza profila berritzeko antolatu duen lan-taldean parte hartu.</p>	<p>a. 2022ko urria</p> <p>b. 1. hiru hilabeteetan</p> <p>c. Ikasturtean zehar</p> <p>d. 2023ko apirila</p> <p>e. Astero.</p>	<p>AZPI PROZESUA: AZ021313 Praktiketako funtzionarioak</p> <p>BATZORDEAK Irakaskuntza funtzioa</p>






<p>9. Ikastetxeen ikuskatzean aurrera egiten jarraitzea, hiruhilabeteka eta etapaka egin beharrekoak zehaztuz.</p>	<p>a. Helburuen bankua sortu. b. Ikastetxeen ikuskatzerako jarraibideak egin, hiru hilabetero. c. Informazio esanguratsuena jasotzeko galdetegiak egin, hiru hilabetero, eta V-92-an jaurti. d. Lortutako informazioaren irakurketa egin eta ondorioak atera, dagokionari helaraziz.</p>	<p>a. 2022ko urria b. Hiru hilabetero c. Hiru hilabetero d. 2023ko ekaina</p>	<p>PROZEDURAK: AZ022004 Ikastetxeen ikuskatzea</p> <p>BATZORDEAK: Ikuskatze batzordea</p>
--	---	--	---

H3. HIRU URTEKO HELBURUA: Hezkuntza-administrazioarekin eta, oro har, gizartearekin **harremana eta lankidetz**a hobetzen aurrera egitea:

Helburua 2022-2023	Jarduerak	Garatze eta lorpen - epeak	Modu nabarmenean inplikaturako lan - taldeak.
<p>10. Administrazioak eta herritarrek (Zuzenean, erregistro elektronikoa, Tramitagune, eta abar) egiten dituzten eskaerak biltzeko eta kudeatzeko egungo prozedurak aztertzea, diseinatzea, ebaluatzea eta aditzera eman, eraginkorragoak izan daitezzen..</p>	<p>a. Tramitagunekoekin bilerak egin. b. Ikuskaritzan ezarrita dauden prozeduren azterketa egin. c. Tramitaguneak zehazten dituen irizpideak eta gure kalitate sistemaren arteko erkaketa burutu. d. Ikuskaritzaren prozedura berritua idatziz jaso. e. Tramitaguneari buruzko formazioa antolatu.</p>	<p>a. Hiru hilabetero b. 1. hiru hilabetean c. 1. hiru hilabetean d. 2023ko apirila e. 2. hiru hilabetean</p>	<p>BATZORDEAK: Kalitate batzordea Lurraldearteko batzordea</p>




<p>11. Ikuskaritzako txostenen edukien kalitatea hobetzea.</p>	<p>a. Ikuskariak idatzitako txostenen lagin bat hartu eta horien azterketa egin. b. Eredu onak aukeratu. c. Txosten-eredu on horiek dituzten atalak, edukia... identifikatu, idatziz jaso eta plantillaren artean partekatu.</p>	<p>a. 2023ko urtarrila b. 2023ko otsaila c. 2023ko ekaina</p>	<p>BATZORDEAK: Kalitate batzordea Lurraldearteko batzordea</p>
<p>12.  Hezkuntza Sailean elkar-lanean, 2022-2023 ikasturtean indarrean dauden hezkuntza sailaren programen garapenean eta ebaluazioan parte hartzea: ERALDATZEN, HEDATZE.</p>	<p>a. Eraldatzen programaren talde teknikoan parte hartu eta ikastetxeen tutorizazioa egin. b. Hedatze proiektudun ikastetxeei zuzendutako jarraipen tresna diseinatu. c. Hedatze proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egin.</p>	<p>a. Ikasturtean zehar b. 1. hiru hilabeteen c. Ikasturtean zehar</p>	<p>PROZEDURAK: AZ022064 Eraldatzen AZ024365 Hedatze</p>
<p>13. Hezkuntza Saileko beste atal batzuekin batera egiten ditugun esku-hartzei buruzko hausnarketa egitea (egokitasuna, prozedura...), beharrezkoak diren doikuntzak eginez.</p>	<p>a. Ikuskaritzaren esku-hartzea eskatzen duten prozesuetan eta ekintzetan parte hartu. b. Esku-hartzen dugun prozesuetan gure esku-hartzeari buruzko hausnarketa egin eta Hezkuntza Sailean dagokionari proposamenak egin.</p>	<p>a. Ikasturtean zehar b. Ikasturtean zehar</p>	<p>PROZEDURAK: AZ022317 Probak aplikatzearen kontrola Elkarrizketa-laguntzaileak Irakasleen atxikipean Batxilergoko sari bereziak Lekualdatze-lehiaketen baremazioa Unibertsitatera sartzeko ebaluazio-proba</p>
<p>14. Ikuskaritzaren Urteko Plana ikastetxeetan ezagutaraztea.</p>	<p>a. Zonako/Lurraldeko ikastetxeetako zuzendariekin bilerak egin, ikuskaritzaren urteko plana azaltzeko.</p>	<p>a. 2022ko azaroan</p>	<p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea</p>
<p>15. Ikuskaritzako web orria eguneratuta mantentzea, ikastetxeentzat eta, oro har, herritarrentzat interesgarria den informazioarekin.</p>	<p>a. Ikuskaritzaren web orria eguneratua mantendu.</p>	<p>a. Ikasturtean zehar</p>	<p>BATZORDEAK: Digitalizazio batzordea Ikuskatze batzordea</p>


H4. HIRU URTEKO HELBURUA: Zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa hobetzen aurrera egitea

Helburua 2022-2023	Jarduerak	Garatze eta lorpen - epeak	Modu nabarmenean inplikaturako lan - taldeak.
16. Aurreko ikasturteetan AZtan egindako analisiaren ondorioz hartu ziren erabakien jarraipena eta doikuntzak egitea.	a. AZ guztietan doikuntzak egin. b. AZtako kontrol-orriak aztertu eta hobekuntza proposamenak jaso, inpaktuari begira. c. AZen memorieta hobekuntza-proposamenak egin.	a. 2022ko abendua b. 2023ko ekaina c. 2023ko ekaina	AZPI-PROZESUAK: AZ021313 Praktiketako funtzionarioak , AZ021320 Zuzendaritza funtzioa AZ021371 Curriculum eta ebaluazioa AZ022386 Ikasleen absentismoa AZ023387 Eskola-jazarpena eta Bizikidetzaren planak (Bizikidetasuna) AZ023095 Enplegatu publikoen diziplina-araubidea AZ023012 Irakaskuntzarako gaitasuna (Irakasteko Konpetentzia) BATZORDEAK: Kalitate batzordea
17. Ezartzen ditugun helburuen egokitasuna eta koherentzia aztertzea eta helburuen lorpen-adierazleak finkatzea kalitate sistemaren eta eraginkortasunaren ikuspuntutik.	a. Kalitate Batzordeak Urteko planaren helburuen eta haien lorpen-adierazleen koherentziaren eta eraginkortasunaren azterketa egin.	a. 2022ko abendua	BATZORDEAK: Kalitate batzordea Lurraldearteko batzordea







<p>18. Kudeaketa aurreratua ereduaren aurrera egitea, Pertsonak eta Berrikuntza elementuei erreparatu bereziki.</p>	<p>a. Euskaliteko arduradunekin bilerak egin. b. Ikuskaritzan sartuko diren pertsonen aukeraketarako prozesuen irizpideak aztertu. c. 2022-2023 urteko planean Pertsonak eta Berrikuntza elementuak nola garatzen diren aztertu eta horretara bideratuta egingo diren jarduerak dokumentu batean bildu. d. Berrikuntzarako ideiak eta proiektu berritzaileak sustatzeko bideak zabaldu, plantillaren inplikazioa areagotuz. e. Ikuskarier arteko harremanak areagotu tarte ludikoen antolaketaren bitartez. f. Ko-ikuskaritza aukerak aztertu (ikastetxeetan esku-hartzean, gai zehatzetan, txosten sensibletan...).g. Euskaliteko Kudeaketa Aurreratua berriazko prestakuntza jaso.</p>	<p>a. Hiru hilabeteko b. 1. hiru hilabetean c. 2023ko ekaina d. 2022ko azaroa e. Ikasturtean zehar f. Ikasturtean zehar g. Ikasturtean zehar</p>	<p>PROZEDURAK: Gogobetetzea neurtzea</p> <p>BATZORDEAK: Kalitate batzordea Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea Berrikuntzaren zaintza batzordea Digitalizazio batzordea</p>
<p>19. Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren (V-92) aukerak aztertzea eta gaur egun dauzkagun beharretara egokitzea.</p>	<p>a. EJI Erek dugun aliantza sakondu, V-92 aplikazioak eskaintzen dizkigun prestazioen kopurua eta kalitatea handitzeko.</p>	<p>b. Ikasturtean zehar</p>	<p>PROZEDURAK V-92 aplikazioa Hezkuntza Ikuskaritza</p> <p>BATZORDEAK Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea</p>
<p>20.  Ikuskarier gaitasun digitala areagotzea.</p>	<p>a. Ikuskaritzaren digitalizazio batzordea sortu. b. Ikuskaritzaren digitalizazioan aurrera egiteko beharrak identifikatu. c. Ikuskarier gaitasun digitala areagotzeko beharrak identifikatu. d. Ikuskaritzaren 2022-2023 urteko prestakuntza planaren barruan gaitasun digitala garatzeko saioak antolatu.</p>	<p>a. 1. hiru hilabetea b. 1. hiru hilabetea c. 1. hiru hilabetea d. Ikasturtean zehar</p>	<p>BATZORDEAK Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea Digitalizazio batzordea Berrikuntzaren zaintza batzordea</p>





<p>21. Administrazioan oro har, eta gure sailean bereziki, gehien erabiltzen diren plataforma digitalen erabilera sustatzea ikuskarien artean (Egoitza digitala, Hezigune, Tramitagune, Ikasgune, Sinadura digitala...).</p>	<p>a. Ikuskariok administrazioiko beste atalekin dugun harremanetan plataforma digitalak erabili.</p> <p>b. Ikuskari guztion sinadura digitala lortzeko kudeaketa egin.</p> <p>c. Plataforma digitalei buruzko prestakuntza eman</p>	<p>a. Ikasturtean zehar</p> <p>b. 2022ko abendua</p> <p>c. Ikasturtean zehar</p>	<p>BATZORDEAK Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea Digitalizazio batzordea Berrikuntzaren zaintza batzordea</p>
<p>22.  ISO 9001:2015 ziurtagiria berritzea. Ikuskaritzaren kalitate sistema aztertzea eta horren araberako erabakiak hartzea.</p>	<p>a. Ikuskaritzaren kalitate sistemaren aztertu eta, eraginkortasunari begira, hobekuntza proposamenak egin.</p> <p>b. Ikuskaritzaren 2022-2023 urteko prestakuntza planaren barruan, kalitatea kudeatzeko ISO sistemaren ezaugarriak azaltzeko saioa(k) antolatu.</p>	<p>a. 1. hiru hilabetean</p> <p>b. 2. hiru hilabetean</p>	<p>BATZORDEAK Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea Kalitate batzordea</p>

H5. HIRU URTEKO HELBURUA: Ikuskaritza-zerbitzuaren gaitasun profesionalaren hobekuntza globalean aurrera egitea, honako hauen bidez:

Helburua 2022-2023	Jarduerak	Garatze eta lorpen - epeak	Modu nabarmenean inplikaturako lan - taldeak.
<p>23.  Ikuskariaren profila eta menperatu beharreko konpetenzien markoa eguneratzea.</p>	<p>a. Aurreko ikasturteetan eginako ikuskarien profilaren dokumentua ikuskari guztiekin partekatu eta osatu.</p> <p>b. Autoebaluaziorako tresna ikuskarien profilerara egokitu eta ikuskari guztiei helarazi.</p> <p>c. Web orrian ikuskarien profila publikatu.</p>	<p>a. 2023ko azaroa</p> <p>b. 2023ko apirila</p> <p>c. 2023ko apirila</p>	<p>PROZEDURA: Ikuskarien harrera eta tutoretza</p> <p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea Digitalizazio batzordea</p>





<p>24. Lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak garatzea, Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunak deskribatzen dituen tresna erabiliz.</p>	<p>a. Zerrendak irekitzeko prozedura zabaltzeko eskaera egin Langileak kudeatzeko Zuzendariari.</p> <p>b. Aurkezten diren hautagaien aukeraketa-prozesua garatu.</p> <p>c. Ikuskarrien LEP deialdia egiteko eskaera egin Langileak kudeatzeko zuzendariari.</p>	<p>a. 2022ko urria</p> <p>b. 1. hiru hilabetea</p> <p>c. 1. hiru hilabetea</p>	<p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea</p>
<p>25. Ikuskaritzaren komunikazio- bideak aztertzea, eta komunikazio-sistema eraginkorra sortzea.</p>	<p>a. Hiru hilabetero, komunikazio-bideak hobetzeko aukerak aztertu lurraldearteko batzordean eta Berrikuntzaren zaintza batzordean.</p> <p>b. Ikuskaritzaren buletina diseinatu eta hilabetero argitaratu.</p>	<p>a. Hiru hilabetero</p> <p>b. 2022ko azarotik aurrera, hilabetero</p>	<p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Berrikuntzaren zaintza batzordea</p>
<p>26. Urteko zereginen banaketan, ikuskari bakoitzaren interesak eta ezagutzak kontuan hartzea motibagarria gerta dakion eta, horren bitartez, inplikazioa, kidesun-sentimendua eta erakundearen helburuekin bat etortzea areagotuz.</p>	<p>a. Duela bi ikasturte egindako hezkuntza ikuskaritzaren balio-aniztasun profesional eta pertsonala aztertze galdetegia berrikusi eta ikasturte honetara egokitutako galdetegia egin.</p> <p>b. Galdetegi horren emaitzak aztertu eta horren arabera erabakiak hartu (lan-taldearen osaera, arduren banaketa...).</p> <p>c. Konpetentzien matriza egin</p>	<p>a. 2. hiru hilabetea</p> <p>b. 2023ko apirila</p> <p>c. 2023ko ekaina</p>	<p>PROZEDURA: Ikuskarrien harrera eta tutoretza</p> <p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea</p>
<p>27. Ikuskari berrien harrera-prozesua berrikustea.</p>	<p>a. Ikuskari berrien harrera-prozesua berrikusi.</p> <p>b. Ikuskari berrien harrera-prozesu berritua idatzi.</p>	<p>a. 1. hiru hilabetea</p> <p>b. 2023ko apirila.</p>	<p>PROZEDURA: Ikuskarrien harrera eta tutoretza</p> <p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea</p>
<p>28. Ezagutza-galera gutxitzeko jakintzaren transferentzia egiteko prozeduren egituratzea.</p>	<p>a. Ezagutzaren transferentziarako dugun dokumentua berrikusi.</p> <p>b. Erretiro Plana egin.</p>	<p>a. 1. hiru hilabetea</p> <p>b. 2023ko apirila.</p>	<p>PROZEDURA: Ikuskarrien harrera eta tutoretza</p> <p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea</p>





29. Ikuskarion garapen profesionalerako Prestakuntza Plana diseinatzea, plantillaren eta Hezkuntza sistemaren beharrei erreparatuz.	a. Prestakuntza Plana egin.	a. 2022ko urria	BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea
---	-----------------------------	-----------------	---

H6. HIRU URTEKO HELBURUA: Beste erakunde batzuekiko lankidetzaprozesuetan aurrera egitea, aliantzak ezartzea eta **berrikuntzaprozesuak bultzatzea**, hobekuntzarako eta egokitzapen eraikitzailea etengabeko aurrerapena errazteko (ikaskuntza eta etorkizuneko ikuspegiarekin aurrera egitea ekarriko duena), langile guztiak inplikatu.

Helburua 2022-2023	Jarduerak	Garatze eta lorpen - epeak	Modu nabarmenean inplikaturako lan - taldeak.
30. Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneke beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> a. Estatuko eta Europako ikuskaritzako jardunaldietan parte hartu. b. Estatuko eta Europako ikuskaritzako jardunaldietan parte hartu emaile bezala. c. Europako ikuskaritzak jasotzeko nazioarteko jardunaldia(k) antolatu. d. Ikasleen ongizatean esku-hartzen duten beste erakundeekin elkarlana: Gizarte zerbitzuak, Osakidetza, Justizia... 	<ul style="list-style-type: none"> a. Ikasturtean zehar b. Ikasturtean zehar c. Ikasturtean zehar d. Ikasturtean zehar 	<p>AZPI-PROZESUAK: AZ023387 Eskola-jazarpena eta Bizikidetzaplanak (Bizikasi) AZ022386 Ikasleen absentismoa</p> <p>PROZEDURA: AZ022308 Etxez etxeko laguntza</p> <p>BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea Kanpo-ekimena batzordea Irakaskuntza funtzioa</p>
31.  Ikuskaritzako langileek ideia berritzaileak proposatzea bultzatuko duten prozedurak aktibatzea.	<ul style="list-style-type: none"> a. Ikuskaritzaren buletinean "Berrikuntzaren postontzia" txertatu. b. Ideia berritzaileak komunikatzeko bideak aztertu. 	<ul style="list-style-type: none"> a. 2022ko azaroa b. Ikasturtean zehar 	BATZORDEAK: Lurraldearteko batzordea Ikuskatze batzordea Berrikuntzaren zaintza batzordea Digitalizazio batzordea



7. Ikuskaritzaren prestakuntza. Ikuskaritza funtzioaren ebaluazioa

7.1. Ikuskaritzaren Prestakuntza Plana

2022-2023 urteko Prestakuntza Plana oinarrituta dago, besteak beste, Hirurteko planaren helburuetan oinarrituta dago. Hau horrela, Ikuskaritzaren prestakuntza eta haren jardunaren ebaluazio-prozesuak ezinbestekoak dira jardueren garapen eraginkorra eta etengabeko hobekuntza lortze aldera.

2022-2023 ikasturteko prestakuntza-planak urteko plan honetan proposatutako helburuak lortzen lagundu behar du, Hezkuntza Ikuskaritzaren ildo estrategikoak eta jarduera giltzarriak aintzakotzat hartuta.

Prestakuntza eraginkorra lortu ahal izateko, Ikuskaritza-plantillaren behar profesionalak kontuan hartu behar dira. Horretarako, Urteko Plan honetan proposatutako xede eta jardueri heltzeko beharrezko prestakuntza lortze aldera, ikasturte hasieran lan saio batean plantillak formazio-jardueren beharrak eta interesak adierazi zuen.

Gauzak horrela, datozen lerroetan zehazten den bezala, ikuskariongandik jasotako iritziak kontuan izanik (ikasturte hasieran egindako bilkura, aurreko ikasturteko asebetetze galdetegiak...) plan honetako helburuekin eta jarduera giltzarriekin loturiko prestakuntza behar hauek aurreikusten dira:

Lehenik eta behin, **ikasleen ongizateari** buruzko formazioari helduko diogu, besteak beste, suizidioen prebentzioaren eremuan sakonduz.

Bigarrenik, **praktiketako funtzionarioen ebaluaziorako** formakuntzaren beharra nabarmendu da.

Hirugarrenik, **Hezkuntza Sailaren harremanetan** oinarritutako jarduera giltzarriarekin erlazionaturik, **diziplina espedientei** buruzko prestakuntza garrantzizkotzat jotzen dugu. Arlo tekniko hau lantzeko diziplina espedienteen marko orokorra landuko da eta kasu errealak aztertuko dira.

Laugarrenik, **Curriculum Berria eta ebaluazio kompetentzialaren** inguruko berrikuntzei buruzko prestakuntza eskainiko da. Horren barruan Programazio didaktikoei buruzko saioak ere izango dira.

Bostgarrenik, **lidergoaren** esparruan, Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioaren ikuspegi berriari buruzko prestakuntza beharra azpimarratzen da. Nazioarteko zein hemengo ikerketek ere agerian uzten baitute lidergoaren garrantzia hezkuntza sistemarentzat orokorrean eta baita ikastetxeentzat ere.

Seigarrenik, **Ikuskaritzaren hobekuntzaren** ildo estrategikoarekin lotuta: Garapen digitala (egoitza digitala, sinadura digitala, Office365...); Kalitate sistemen ezaugarriak; Ikuskarrien profila; Lege-markoa (Lanbide Heziketarako legea, Hezkuntza Lege Berria, Prozedura administratiboa...); eta, Euskararen ahozko erabilera.

Hezkuntza Ikuskaritzak berdinen arteko formazioa bultzatu nahi du talde txikien bitartez, hau da, bai AZ egituretan edo/eta Batzordeetan ere.

Horretaz gain, jakintzaren transferentzia ziurtatzeko moduak bilatzeari lehentasuna emango zaio. Gure zerbitzuan azkeneko urte hauetan plantilla aldatzen ari da etengabe, Hezkuntza ikuskarrien jubilazio ugari suertatzen ari direlako.

Gainera, gure praktikari buruzko hausnarketarako eta guztion arteko ezagutza eraikitzeko kasu errealetan oinarritutako prestakuntza saioak bultzatuko dira, ikuskarion interesei erantzun nahian.

Bestalde, azkeneko urteotan gertatzen ari den ikuskarrien aldaketa dela eta, pertsonak elkar ezagutze aldera, lurralde arteko formazio saioak ere bultzatuko dira, toki desberdinetako ikuskariei elkarguneak sortarazteko eta Hezkuntza Ikuskaritzaren kide izatearen sentimendua areagotze aldera.





Nazioarte zein estatu mailako topaketak, irakaskuntzaren eta ikuskaritzaren eraginkortasunari buruzko ikerketa berrietan oinarritutako prestakuntza jarduerak ere bultzatuko dira.

Hortaz, Plan honi erantsita dagoen [III. eranskina](#) ikasturte osorako plantillarentzat planifikaziorako tresna baliagarria izango delakoan gaude.

7.2. Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa

Ikuskaritzaren funtzioaren ebaluaziorako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretua da gure marko orokorra eta eredutzat hartzen dugu ikuskarion funtzioa betetzeko beharrezko gaitasun teknikoak, profesionalak, gizartekoak eta etikoak zehaztean.

Aurreko ikasturteetan garaturiko ikuskariaren eginkizunetarako gaitasunak oinarri hartuta, profila eta kompetentzien markoa eguneratuko dira.

Ikuskaritza funtzioaren kompetentzia profesionalak zehaztu eta erregistratzeko aukera emango duen ikuskariaren gaitasun matrizea diseinatuko da, hiru eremutan sailkatuta: «Jakin», «Egin» «Izan». Tresna honen bitartez ikuskariaren indar-guneak eta hobekuntzarako esparruak ezagutzeko aukera izango da.

Ikuskariaren eginkizunaren kompetentzia-profilaren bertsio berri horren bitartez zerbitzu-eginkizunetan dauden ikuskariak ebaluatuko dira.

Ikuskarien autoebaluazio eta ebaluaziorako prozesu hauek direla medio, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuari hobekuntzak ekarriko dizkio bai ikuskariaren banakako gaitasunei begira baita erakundeari berari ere.

Alde batetik, 98/2016 Dekretuak zehazten duen bezala, zerbitzu eginkizunetan dauden ikuskariei lanaldia luzatze aldera, ebaluazio positiboa behar izango dute. Hortaz, egoera horretan dauden ikuskariak ebaluatuko dira eta horretarako, txosten eredu berriztuko da, aipatutako gaitasun matrize berria oinarri hartuta.

Bestetik, ikuskaritzaren plantillaren ebaluazioari dagokionez, gaitasun matrize berri hau oinarria izango da zerbitzuaren ebaluazio orokorra egin ahal izateko. Honen helburua da definitzea erakundearen alde sendoak eta baita hobetzeko esparruak ere. Zentzu honetan ikuskariei zuzenduko zaie formazioa, erakundearen premiak, zonetako eta lurraldeetako beharrak kontuan izanik.

Amaitzeko, aurreko lerroetan adierazi den bezala, azkeneko urte hauetan Hezkuntza ikuskari ugariaren erretiroak suertatzen ari dira eta datozen urteotan joera hau mantenduko dela dirudi. Zentzu horretan ikuskari berriak hautatzeko prozesu berri bat jarriko da abian zerbitzu eginkizunen bitartez lanpostu libreak bete ahal izateko. Horrekin batera, ikuskari berrien harrera plana eguneratu eta sistematizatuko da, eta erretiro plana ere zehaztuko da, jakintza transferentziarako mekanismoak definitzen direla ziurtatuz.



8. Ikuskaritzaren antolakuntza

Ikuskaritzaren antolamendu-egitura Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 9. artikuluan jasota dago.

Hezkuntza Sailburuordetzaren menpe, Hezkuntza Ikuskaritza Ikuskaritza Zentralean, lurralde-unitateetan eta Hezkuntza Ikuskaritzako zonetan egituratzen da.

Ikuskari Nagusiak (Hezkuntza Sailburuordetzaren menpe dago) eta hiru ikuskari zentralek osatzen dute Ikuskaritza Zentrala. Ikuskaritzaren plangintza orokorra, prestakuntza eta kontrola ditu oinarritzko eginkizun, bai eta parte-hartzea sustatzea ere. Gainera, Ikuskaritza Zentralari dagokio hiru urteko eta urteko plan orokorren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta sistema ebaluatzeko eta berrikusteko txostenak egitea.

Lurralde historiko bakoitzak lurralde-unitate bat du, eta haren buru Ikuskaritzako lurralde-burua dago, zuzenean Ikuskari Nagusiaren menpe dagoena. Ikuskaritzako Lurralde Unitate horien egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako hiriburu bakoitzean dago, Gipuzkoan izan ezik, bi egoitza baititu: Donostia eta Eibar.

Ikuskaritzako lurralde-unitateak Ikuskaritza-zona baten edo batzuen bidez antolatzen dira, eta zonako ikuskari-buru batek zuzentzen ditu.

Guztiarekin, Ikuskaritzak urteko planaren ekintzak eta koordinazio-prozesuak garatzen ditu lan-taldean eta batzordean bidez, hauen artean:

- **Lurralde arteko Batzordea**, Ikuskaritza Zentralak eta Ikuskaritzako lurralde-buruek osatzen dutena. Besteak beste, honako hauetaz arduratzen da: Ikuskaritzaren Urteko Plana egiteaz, jarraipena egiteaz eta ebaluatzeaz, hiru lurraldeetako Ikuskaritza-jarduerari buruzko irizpideak bateratzeaz, prestakuntza-eskaerak aztertzeaz eta erantzuteaz eta urteko planaren garapenean sortzen diren gorabeherari irtenbideak emateaz.
 - **Ikuskatze Batzordea**, Lurralde arteko Batzordeko kideek eta zonako buruek osatzen dutena. Erakundearen jarduera orokorra gainbegiratzen du, ikastetxeetan egiten diren jardueren integrazioa, koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko, eta, sistemaren ikuskatze orokorraren emaitzak aztertu ondoren, ondorioak eta proposamenak egiten ditu, administrazioa eta zerbitzua bera bideratzeko.
- Ikasturte honetan zehar, batzorde honek bere jarduna sendotu behar du eta lanean jarraitu behar du, lantaldeen egitura pixkanaka hobetzen joateko pertsonen lidergoa eta parte-hartzea sustatzeko.
- **Kalitate Batzordea**. Ikasturte honetan honako jardura hauetan jasotako zereginen zati bat koordinatu beharko du: ikuskaritza-zerbitzua hobetzea, estrategia hobetzeko jarduerak, jardueren eraginkortasuna, inplikazioa eta berrikuntza bultzatzea azpiprozesu guztien berrikuspenari, bereziki giltzarriari, eta arriskuaren eta eraginaren azterketa egin beharko du. Era berean, erakundea kudeaketa aurreratuen eredura hurbiltzeko lan egingo du, eta barne-komunikazioa (horizontala eta bertikala) eta kanpo-komunikazioa hobetzen lagunduko duten prozedurak planifikatzen lagunduko du.
 - **Euskararen Erabilera Batzordea**. Komunikazioetan, txostenetan eta ikastetxeetako harremanetan euskararen erabilera sustatzea eta hobetzea du helburu. Ikasturte honetan, osasun-alarmaren egoeraren ondorioz aurreko ikasturteetan egin ezin izan ziren ekintzak garatuko dira.
 - **Berdintasun Planaren Batzordea**. Batzorde honek jarraituko du bultzatzen Ikuskaritzari esleitutako ekintzak bete daitezzen hezkuntzaren arloan eskumena duen organoak bultzatutako berdintasuna, hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzeko plan estrategikoetan (prestakuntza barne).





- **Berrikuntzaren zaintzaren Batzordea.** Etorkizuneko ikuspegiarekin aurrera egiteko eta datoen ikasturteetan izango dugun ziurgabetasun-egoeran etengabe agertuko diren premia eta erronka berriei erantzuteko, erantzun azkar eta eraginkorrak aurkitzea erraztuko duten mekanismoak ezarri behar dira.

Batzorde honek, ideia berritzaileak biltzea izango du helburu, besteak beste, hauen bidez:

- Prozedura arinak ezartzea, ikuskaritza-plantillako kideek ideia berritzaileak proposa ditzaten.
- Estatuko gainerako Erkidegoetatik nahiz nazioartetik datozen ekarpen eta ideia berritzaileak biltzea.
- Ekarpen eta ideia horien azterketa. Jardunbide egokiak identifikatzea. Erakundean duten aplikagarritasunari buruzko erabakiak hartzea.
- Antzeko ezaugarriak dituzten beste erakunde batzuekin konparazioak egitea.
- Arriskuen eta aukeren identifikazioa sistematizatzea, bai eta horiei erantzungo dieten prozesuak eta egiturak dinamizatzea ere.

Orobat, Batzorde honek gure erakundean jardunbide egokiak garatzeko neurriak ezartzea bultzatuko du.

- **Digitalizazio batzordea:** Eraldaketa digitala eta Administrazioarekiko harremanak telematikoki egin behar direnez, Hezkuntzako Ikuskaritzak lan-eremu berri horiek ezagutu behar ditu Office 365, Tramitagune, Hezkuntza aplikazioak (V92, W68...). Batzorde honek ematen diren berrikuntza teknologikoak jasoko ditu. Horretarako, prestakuntza jasoko du eta ezagutza gainerako langileekin partekatuko du.
- **Lanbide Heziketako batzordea:** Batzorde honek Lanbide Heziketan argitaratzen diren jarraibide, ebazpen eta aginduen gainean egongo da plantillari helarazteko. Aldi berean, metodologia eta ebaluazio arloan sortutako zalantzak eta beharrak asetuko ditu. Konbalidazio, salbuespen eta homologazioaren atalean erantzungo ditu ikastetxeetatik etorritako galderak.
- **Kanpo ekimena batzordea:** Batzorde honek Estatu mailan zein Nazioarteko foroetatik etorritako formazioa bildu, jorratu eta aditzera emango dio plantillari. Parte hartuko du aipatutako foro hauetan, hartzaile edo/eta emaila moduan eta praktika onak trukatzeko prest egongo da. SICI-n modu aktibo batez arituko da eta datorren urtean Nazioarteko asanblada orokorra antolatuko du, Europako Hezkuntza Ikuskaritza askoren ordezkariak presente egongo direlarik.
- **Eguneratze normatiborako batzordea:** Batzorde honek lege markoa eta haren lege garapena, aldaketak, xehaztaperak ikertu, jaso eta horien berri emango dizkio plantillari. Baita ere, horren inguruko formazioa helaraziko die ikuskariei.
- **Irakaskuntza-funtzioa batzordea:** Irakaskuntzaren arloaren inguruko azkeneko proposamenak (gure batzordeak egindakoak eta beste erakundetatik etor daitezkenak) jasoko ditu eta plantillarekin partekatuko ditu.
- **Azpiprozesu/prozedura-taldeak,** Ikuskatze-jarduerak diseinatzeko, ezartzeko, bultzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko sortutako lantaldeak sortzen dira. Ikasturte honetan, talde horietako zonako eta lurraldeko mailak osatzen dituzten pertsonen arteko koordinazioa sendotuko da, informazioa behar bezala transmititzen dela eta ikuskariek zonetan egin behar dituzten lanak garatzen direla bermatzeko.

8.1. Ikuskariei zentroak esleitzea

Alde bakoitzean egin beharreko talde-lana alde batera utzi gabe, hezkuntzako ikuskari bakoitzak erreferentziako ikuskaria den ikastetxe kopuru jakin bat du esleituta, eta ikuskatzearen zuzeneko arduraduna izango da, bai eta bere esku-hartzearen ondoriozko administrazio-jarduketena ere (98/2016 Dekretuaren 9. artikuluko 7. paragrafoa).





Ikastetxeen esleipen hori aldian-aldian berrikusi behar da; izan ere, ikastetxeei ematen zaien arreta aberastu egiten du, epe luzera, ikuskarien estiloen eta prestakuntzaren aniztasunak, eta, gainera, objektibotasuna sustatzen du haien balorazioetan eta, ondorioz, erabakiak hartzean.

Ikastetxex aldatu behar izanez gero, aldaketok irailean zehar izango dira, zentroz aldatzen diren ikuskariek bertan egiteke dauden zereginak amaitzen dituztenean.

Prozesu hori guztia gauzatzeko, 98/2016 Dekretuaren 13.d eta 15.e artikuluetan ezarritako eskumenak eta eginkizunak hartuko dira kontuan.

8.2. Lurraldeetako urteko plan orokorra zehaztea

Plan hau erreferentzia izango da urteko lurralde-planak egiterakoan, lurralde bakoitzean plan hori zehaztea ekarriko baitute.

Zona bakoitzeko ikuskaritza-taldeak antolatuko ditu ikasturte bakoitzeko jarduerak, Ikuskari Nagusiak ezarritako urteko planaren arabera eta Ikuskaritzako lurralde-buruak egindako lurralde-planaren arabera.

9. 2022-2023 Urteko planaren ebaluazioa eta eguneratzea

Urteko Plan honen betetze-mailaren ebaluazioa Lurralde Arteko Batzordeak egingo du, bai eta Lurralde Burutzek ere, zonako burutzen koordinazio-bileretan eta zonako lantaldeen bileretan.

Gainera, hiru hilean behin, Ikuskatze Batzordeak (Ikuskaritza Nagusia, lurralde-buruak eta zonako buruak) ikuskariei bidaltzen zaizkien inkesten emaitzak aztertuko ditu, egindako lanari buruzko balorazioak jasotzeko.

2022-2023 ikasturtea amaitzean, Urteko Plan hau ebaluatuko da, honako hauek kontuan hartuta:

- Lurralde Arteko Batzordeak ikasturtean egindako jarraipenaren ondorioak, Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio orokorra eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eraginkortasunari buruzkoa.
- 2022-2023ko prestakuntzaren emaitzak, inpaktua neurtzeari dagokionez.
- Proposatutako helburuen lorpen-mailaren jarraipenetik lortutako datuak.
- AUDITORETZEN (barnekoak eta kanpokoak) emaitzak.
- Azpiprozesuetako eta lan-batzordeetako taldeek egindako ebaluazioaren emaitzak, egindako lanari eta lortutako emaitzei dagokienez.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barneko eta kanpoko hartzaileen gogobetetzea neurtzearen azterketa.
- Ikastetxeen Ikuskatze Memorian jasotako emaitzen azterketa.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.
- Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren kalitate-politika eta dokumentazioa berrikustearen emaitza.

Urteko Plan honen ebaluazioa Ikuskaritza Zentralak egindako Sistemaren Berrikuspenari buruzko Txostenean (Memoria) jasoko da. Txosten horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eragina izan dezaketen aldaketen iradokizunak, besteak beste, kalitate-politika eta kalitate-helburuak, helburuak lortzearen emaitzak eta prozesu- eta zerbitzu-adierazleak; AUDITORETZEN emaitzak (barnekoak eta kanpokoak); prozesuetan eta zerbitzuetan gerta daitezkeen desadostasunak; ekintza zuzentzaileen eta prebentzio-ekintzen egoera; gogobetetze-neurketak; iradokizunak, kexak eta erreklamazioak eta hobetzeko gomendioak oro har; eta, Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio orokorra, eta ondorioei buruzko atal bat.





9.1. Urteko plana eguneratzea

VII. eranskinean, urteko planaren aldaketa posibleak -Batzorde berriak sortzea, helbururen bat betetzeko edo jarduera jakin batzuk egiteko ezintasunaren aurreikuspena, aurreikusi gabeko ekintza berriak,...- eta ikaskuntza- eta hobekuntza-mugarriak (egiten diren aurrerapenak eta lorpenak) jasotzeko gune bat aurkezten da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 3an

Xabier Balerdi Iraola
Hezkuntza Ikuskari Nagusia






ERANSKINAK





I. Eranskina

Ikuskaritzak zentroetan egiten dituen esku-hartzeen kronograma. 2022-2023 ikasturtea





Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	
H1. Hezkuntza Ikuskaritzak indarrean dagoen araudiak hezkuntza komunitateari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak bermatzeko egiten duen ekarpenean aurrera egitea	h1. Ikasleen eta irakasleen ongizatea sustatzeko estrategiak garatzea, elkarbizitzari probentziotik eraginez Bizikasik ezartzen duenari jarraituz.	a. 2021-2022 ikasturtean hasitako 201/2008 Dekretuaren errebisioarekin jarraitu eta neurri alternatiboak indartu.											
		b. Eskola-jazarpen kasuen kontrola eta jarraipena.											
		c. Hezkuntza Sailaren suizidiorako plan integralari buruzko prestakuntza gauzatu plantilla osoarentzat.											
		d. Ikastetxeen hezkidetzaren diagnostikorako tresnaren diseinuan parte hartu.											
		e. Ikastetxe publikoetako langileei egindako eraso kasuetan esku-hartu.											
	h2. Eskola komunitateko kideen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko ikuskaritzak egiten dituen zereginak dagozkien prozeduren arabera jardutea, horiei buruzko informazioa izatea eta beharrezkoak diren doikuntzak egitea.	a. Gure prozeduren errebisioa egin											
		b. Ikasleen absentismoaren kontrola egin											
		c. Euskaratik salbuesteko eskaeren kontrola egin.											
		d. NCEn kontrola egin.											
		e. Etxean eman beharreko hezkuntza-arretaren kudeaketa egin.											





Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
		f. Ikastetxeen betebeharren kontrola egin: EJA, irakasleen absentismoa, irakasleen titulazioa itunpeko ikastetxeetan, kide anitzeko organoen aukeraketa, proben aplikazioa...										
		g. Irakasleek haien betebeharrak betetzen ez dituzten kasuetan esku-hartu.										
	h3. Familiek, ikasleek... ebaluazioari buruzko informazioa jaso dutela bermatzea.	a. Ebaluazio objektiborako eskubidea bermatzeko ikastetxeek duten prozedura gainbegiratu (AJA...).										
		b. Ikasleen ebaluazio objektiborako eskubidea bermatzeko estrategia eraginkor eta baliozkotuen diseinua egin.										
		c. Ebaluazio/kalifikazio irizpideak zehaztuta daudela eta ezagutzera ematen direla kontrolatu eta jarraipena egin (programazioetan ebaluazio atala, gurasoekin bileretako egutegia, gai zerrenda ...)										
		d. Ebaluazio saioak ikasturte hasierako ebazpenak dionaren arabera egiten direla gainbegiratu eta jarraipena egin (saioetako egutegia, egutegia).										






Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina
	h4. Administrazioari proposamenak egitea ikasturte honetan eskubide eta betebeharrekin lotuta aterako den araudia garatzeko: curriculum, ebaluazioa, zuzendaritza, aniztasuna, eskola-antolaketa...	a. Lantaldeak osatu beharrezkoa den araudia aztertzeke eta garatzeko.										
		b. Arauen inguruko txostena / proposamenak dagokionari helarazi.										
H2. EAEko ikuskaritzak ikastetxeetan duen esku-hartze ereduaren efikazia eta efizientzia hobetzen aurrera egitea	h5. Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, arreta berezia jarritz antolaketan, metodologian, ikasleen ebaluazioan eta BeAren eginkizunetan	a. Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzerako jarraibideak prestatu eta plantilla osoari helarazi, denok modu bateratuan esku-hartzeko.										
		b. Berritzegunearekin koordinazioa.										
		c. Ikuskarientzako prestakuntza antolatu.										
	h6. Ikastetxeetako lidergoan eragiten jarraitzea	a. Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioaren diseinu berria amaitu.										
		b. Zuzendarien hautaketa-prozesuetako batzordeetan parte hartu.										
		c. Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioa egin dagokion kasuetan										





Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
		d. Zuzendaritzarako hautagairik ez dagoen ikastetxeetan berariazko esku-hartzea egin bide-orriari jarraiki										
		e. Zuzendaritzakoak ez diren karguen izendapenaren kudeaketa egin??										
	h7. Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoak ikastetxeetan inplementatzen direla ikuskatzea, informazioa jasotzea, aholkatzea, orientatzea.	a. Ikuskatzea egiteko jarraibideak idatzi.										
		b. V92-an galdetegiak jaurti.										
		c. Lortutako informazioaren irakurketa egin eta ondorioak atera, dagokionari helaraziz.										
	h8.  Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioan aurrera egitea.	a. Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa egiteko jarraibideak idatzi.										
		b. Ikastetxeetan bilerak egin tutoreekin eta zuzendariekin.										
		c. Praktiketako funtzionarioen gela-behaketak egin										
		d. Irakasle-profilaren dokumentua osatu.										
		e. MEFPk irakaskuntza profila berritzeko antolatu duen lan-taldean parte hartu.										





Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
	h9. Ikastetxeen ikuskatzean aurrera egiten jarraitzea, hiruhilabeteka eta etapaka egin beharrekoak zehaztuz.	a. Helburuen bankua sortu.		■								
		b. Ikastetxeen ikuskatzerako jarraibideak egin, hiru hilabetero.		■			■			■		
		c. Informazio esanguratsuen jasotzeko galdetegiak egin, hiru hilaLortutako informazioaren irakurketa egin eta ondorioak atera, dagokionari helaraziz. betero, eta V92-an jaurti.		■			■			■		
		d. Lortutako informazioaren irakurketa egin eta ondorioak atera, dagokionari helaraziz.										■
H3. Hezkuntza-administrazioarekin eta, oro har, gizartearekin harremana eta lankidetzaren hobetzea aurrera egitea	h10. Administrazioak eta herritarrek (Zuzenean, erregistro elektronikoa, Tramitagune, eta abar) egiten dituzten eskaerak biltzeko eta kudeatzeko egungo prozedurak aztertzea eta ebaluatzea, eraginkorragoak izan daitezten.	a. Tramitagunekoekin bilerak egin		■			■			■		
		b. Ikuskaritzan ezarrita dauden prozeduren azterketa egin.	■	■	■	■						
		c. Tramitaguneak zehazten dituen irizpideak eta gure kalitate sistemaren arteko erkaketa burutu.	■	■	■	■						
		d. Ikuskaritzaren prozedura berria idatziz jaso.								■		
		e. Tramitaguneari buruzko formazioa antolatu.	■	■	■	■				■		





Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	
	h11. Ikuskaritzako txostenen edukien kalitatea hobetzea.	a. Ikuskariek idatzitako txostenen lagin bat hartu eta horien azterketa egin.											
		b. Eredu onak aukeratu.											
		c. Txosten-eredu on horiek dituzten atalak, edukia... identifikatu, idatziz jaso eta plantillaren artean partekatu											
	h12. Hezkuntza Sailean elkar-lanean, 2022-2023 ikasturtean indarrean dauden hezkuntza sailaren programen garapenean eta ebaluazioan parte hartzea: ERALDATZEN, HEDATZE.	a. Eraldatzen programaren talde teknikoan parte hartu eta ikastetxeen tutorizazioa egin.											
		b. Hedatze proiektudun ikastetxeei zuzendutako jarraipen tresna diseinatu.											
		c. Hedatze proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egin											
	h13. Hezkuntza Saileko beste atal batzuekin batera egiten ditugun esku-hartzei buruzko hausnarketa egitea (egokitasuna, prozedura...), beharrezkoak diren doikuntzak eginez.	a. Ikuskaritzaren esku-hartzea eskatzen duten prozesuetan eta ekintzetan parte hartu											
		b. Esku-hartzen dugun prozesuetan gure esku-hartzeari buruzko hausnarketa egin eta Hezkuntza Sailean dagokionari proposamenak egin.											






Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
	h14. Ikuskaritzaren Urteko Plana aurkezteko bilera bat egitea ikastetxeetako zuzendari guztiekin, lurraldeka.	a. Zonako/Lurraldeko ikastetxeetako zuzendariekin bilerak egin, ikuskaritzaren urteko plana azaltzeko.										
	h15. Ikuskaritzako web orria eguneratuta mantentzea, ikastetxeentzat eta, oro har, herritarrentzat interesgarria den informazioarekin.	a. Ikuskaritzaren web orria eguneratua mantendu.										
H4. Zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa hobetzen aurrera egitea	h16. Aurreko ikasturteetan AZtan egindako analisiaren ondorioz hartu ziren erabakien jarraipena eta doikuntzak egitea.	a. AZ guztietan doikuntzak egin.										
		b. AZen memorietan hobekuntza-proposamenak egin.										
		c. AZtako kontrol-orriak aztertu eta hobekuntza proposamenak jaso, inpaktuari begira.										
	h17. Ezartzen ditugun helburuen egokitasuna eta koherentzia aztertzea eta helburuen lorpen-adierazleak finkatzea kalitate sistemaren eta eraginkortasunaren ikuspuntutik.	a. Kalitate Batzordeak Urteko planaren helburuen eta haien lorpen-adierazleen koherentziaren eta eraginkortasunaren azterketa egin.										





Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	
	h18. Kudeaketa aurreratuaren eremuan aurrera egitea, bigarren kontraste bat eskatzea, Pertsonak eta Berrikuntza elementuei erreparatuz bereziki.	a. Euskaliteko arduradunekin bilerak egin.											
		b. Ikuskaritzan sartuko diren pertsonen aukeraketarako prozesuen irizpideak aztertu.											
		c. 2022-2023 urteko planean Pertsonak eta Berrikuntza elementuak nola garatzen diren aztertu eta horretara bideratuta egingo diren jarduerak dokumentu batean bildu.											
		d. Berrikuntzarako ideiak eta proiektu berritzaileak sustatzeko bideak zabaldluskarien arteko erlazioak areagotu tarte ludikoen antolaketaren bitartez. u, plantillaren inplikazioa areagotuz.											
		e. Ikuskarien arteko harremanak areagotu tarte ludikoen antolaketaren bitartez.											
		f. Ko-ikuskaritza aukerak aztertu (ikastetxeetan esku-hartzean, gai zehatzetan, txosten sensibleetan...).											
		g. Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuaren berriazko prestakuntza jaso											



Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
	h19. Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren (V-92) aukerak aztertzea eta gaur egun dauzkagun beharretara egokitzea.	a. EJI Erekun dugun aliantzan sakondu, V92 aplikazioak eskaintzen dizkigun prestazioen kopurua eta kalitatea handitzeko.										
	h20.  Ikuskaritzen gaitasun digitala areagotzea.	a. Ikuskaritzaren digitalizazio batzordea sortu										
b. Ikuskaritzaren digitalizazioan aurrera egiteko beharrak identifikatu.												
c. Ikuskaritzaren digitalizazioan aurrera egiteko beharrak identifikatu.												
d. Ikuskaritzaren 2022-2023 urteko prestakuntza planaren barruan gaitasun digitala garatzeko saioak antolatu.												
h21. Administrazioan oro har, eta gure sailean bereziki, gehien erabiltzen diren plataforma digitalen erabilera sustatzea ikuskarien artean (Egoitza digitala, Hezigune, Tramitagune, Ikasgune, Sinadadura digitala...).	a. Ikuskariok administrazioko beste atalekin dugun harremanetan plataforma digitalak erabili											
	b. Ikuskari guztion sinadura digitala lortzeko kudeaketa egin.											
	c. Plataforma digitalei buruzko prestakuntza eman											



Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
	h22. ISO 9001:2015 ziurtagiria berritzea. Ikuskaritzaren kalitate sistema aztertzea eta horren araberako erabakiak hartzea.	a. Ikuskaritzaren kalitate sistemaren aztertu eta, eraginkortasunari begira, hobekuntza proposamenak egin										
		b. Ikuskaritzaren 2022-2023 urteko prestakuntza planaren barruan, kalitatea kudeatzeko ISO sistemaren ezaugarriak azaltzeko saioa(k) antolatu.										
H5. Ikuskaritza-zerbitzuaren gaitasun profesionalaren hobekuntza globalean aurrera egitea	h23. Ikuskariaren profila eta menperatu beharreko konpetentzien markoa eguneratzea.	a. Aurreko ikasturteetan egindako ikuskariaren profilaren dokumentua ikuskari guztiekin partekatu eta osatu.										
		b. Autoebaluaziorako tresna ikuskarien profilerara egokitu eta ikuskari guztiei helarazi.										
		c. Web orrian ikuskarien profila publikatu.										
	h24. Lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak garatzea, Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunak deskribatzen dituen tresna erabiliz.	a. Zerrendak irekitzeko prozedura zabaltzeko eskaera egin Langileak kudeatzeko Zuzendariari.										
		b. Aurkezten diren hautagaien aukeraketa-prozesua garatu.										
		c. Ikuskarien LEP deialdia egiteko eskaera egin Langileak kudeatzeko zuzendariari.										



Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	
	h25. Ikuskaritzaren komunikazio- bideak aztertzea, eta komunikazio-sistema eraginkorra sortzea.	a. Hiru hilabetero, komunikazio-bideak hobetzeko aukerak aztertu lurraldearteko batzordean eta Berrikuntzaren zaintza batzordean.											
		b. Ikuskaritzaren buletina diseinatu eta hilabetero argitaratu.											
	h26. Urteko zereginen banaketan, ikuskari bakoitzaren interesak eta ezagutzak kontuan hartzea motibagarria gerta dakion eta, horren bitartez, inplikazioa, kidesun-sentimendua eta erakundearen helburuekin bat etortzea areagotuz.	a. Duela bi ikasturte egindako hezkuntza ikuskaritzaren balio-aniztasun profesional eta pertsonala aztertzeko galdetegia berrikusi eta ikasturte honetara egokitutako galdetegia egin											
		b. Galdetegi horren emaitzak aztertu eta horren arabera erabakiak hartu (lan-taldearen osaketa, arduren banaketa...).											
		c. Konpetentzien matriza egin											
	h27. Ikuskari berrien harrera-prozesua berrikustea.	a. Ikuskari berrien harrera-prozesua berrikusi.											
		b. Ikuskari berrien harrera-prozesu berria idatzi.											



Hiru Urteko Helburua	2022 - 2023 Helburua	Jarduerak	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	
	h28. Ezagutza-galera gutxitzeko jakintzaren transferentzia egiteko prozeduren egituratzea.	a. Ezagutzaren transferentziarako dugun dokumentua berrikusi.											
		b. Erretiro Plana egin.											
	h29. Ikuskarion garapen profesionalerako Prestakuntza Plana diseinatzea, plantillaren eta Hezkuntza sistemaren beharrei erreparatuz.	a. Prestakuntza Plana egin.											
H6. Beste erakunde batzuekiko lankidetzaprozesuetan aurrera egitea, aliantzak ezartzea eta berrikuntzaprozesuak bultzatzea , hobekuntzarako eta egokitzapen eraikitzailea etengabeko aurrerapena errazteko (ikaskuntza eta etorkizuneko ikuspegiarekin aurrera egitea ekarriko duena), langile guztiak inplikatu.	h30. Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneke beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko.	a. Estatuko eta Europako ikuskrizako jardunaldietan parte hartu											
		b. Europako ikuskaritzak jasotzeko nazioarteko jardunaldia(k) antolatu.											
		c. Ikasleen ongizatean esku-hartzen duten beste erakundeekin elkarlana: Gizarte zerbitzuak, Osakidetza, Justizia...											
	h31. Ikuskaritzako langileek ideia berritzaileak proposatzea bultzatuko duten prozedurak aktibatzea.	a. Ikuskaritzaren buletinean "Berrikuntzaren postontzia" txertatu.											
		b. Ideia berritzaileak komunikatzeko bideak aztertu.											





II. Eranskina

Ikastetxeak hobetzen laguntzea

Azpiprozesua	Egiteko aldia	Aplikazio eremua	Ikuskaritza zentrala	Lurralde arteko Taldea	Lurraldeko Taldea	Zereginak
